

**Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Infantil**

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo de Fin de Grado

**Piktogramak bigarren
hizkuntza eskuratzeko
estimulatzailerik gisa
Haur Hezkuntzan**

Irati BARBERENA COCERA

GIZA, GIZARTE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS, SOCIALES Y DE LA EDUCACIÓN

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

Ikaslea / Estudiante

Irati BARBERENA COCERA

Izenburua / Título

Piktogramak bigarren hizkuntza eskuratzeko estimulatzailerik gisa Haur Hezkuntzan/ Los pictogramas como estimulación en la adquisición de una segunda lengua en Educación Infantil

Gradua / Grado

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro

Giza, Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas, Sociales y de la Educación

Zuzendaria / Director

Pablo SOTÉS RUIZ

Saila / Departamento

Osasun Zientziak / Ciencias de la Salud

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2021/2022

Seihilekoa / Semestre

Udaberrikoa / Primavera

LABURPENA

Esku artean dugun Gradu Amaierako Lan honetan, gaur egun geroz eta ezagunagoa den Komunikatzeko Sistema Alternatibo bat, hala nola, piktogramak, Haur Hezkuntzako etapan dauden haurrentzat bigarren hizkuntza bat eskuratzeko estimulatzailerik gisa erabiltzea posible dela jakinaraztera eman nahi da. Alde batetik, gizartean KSA-ei buruz dauden ideiak aztertzeko galdetegi bat egin da, haiekiko dauden aurrezagutzak kontuan izateko. Bestetik, nahiz eta piktogramak hizkuntzarekin lotuta dauden nahasteak dituzten haur eta helduekin erabilten diren, lan honetan, piktogramen erabilera ez da hizkuntzarekin lotutako nahasteekin lotzen, Haur Hezkuntzan dauden bi haurren bigarren hizkuntza bat ikastearen prozesuarekin baizik. Komunikazioa ezinbestekoa da eta hizkuntzaren edota komunikazioaren garrantzia ere goraiatu nahi izan da. Bigarren hizkuntza bat ikasten ari diren haurrek ere, komunikatzeko asmoa izan ohi dute, eta piktogramak tresna erabakigarria izan daitezke prozesuan, laguntza gehigarri bezala.

Hitz gakoak: Komunikatzeko Sistema Alternatiboak (KSA), piktogramak, komunikazioa, bigarren hizkuntza, Haur Hezkuntza.

RESUMEN

En este Trabajo de Fin de Grado se pretende dar a conocer la posibilidad de utilizar un Sistema Alternativo de Comunicación, como son los pictogramas (cada vez más conocidos en la actualidad) como estimulante para la adquisición de una segunda lengua en la etapa de Educación Infantil. Por un lado, se ha elaborado un cuestionario para analizar las ideas que existen sobre los SAAC en la sociedad, a fin de tener en cuenta las premoniciones existentes respecto a los mismos. Por otro lado, aunque los pictogramas se utilizan con niños y adultos con trastornos relacionados con el lenguaje, en este trabajo, el uso de los pictogramas no se asocia a trastornos relacionados con el lenguaje, sino al proceso de aprender una segunda lengua de dos niños en Educación Infantil. La comunicación es imprescindible y también se ha querido poner en valor la importancia de la lengua y/o la comunicación. Los niños que están aprendiendo una segunda lengua también suelen tener intención de comunicarse y los pictogramas pueden ser una herramienta decisiva en el proceso como apoyo adicional.

Palabras clave: Sistemas Alternativos y Aumentativos de la Comunicación (SAAC), pictogramas, comunicación, segunda lengua, Educación Infantil.

ABSTRACT

The aim of this Final Degree Project is to raise awareness of the possibility of using an Alternative Communication System, such as pictograms (which are becoming increasingly popular nowadays) as a stimulant for the acquisition of a second language in Infant Education. On the one hand, a questionnaire has been elaborated to analyse the ideas that exist in society on the use of ADC in order to take into account the existing premonitions about ADC. On the other hand, although pictograms are used with children and adults with language-related disorders, in this work, the use of pictograms is not associated with language-related disorders, but with the process of learning a second language of two children in pre-school education. Communication is essential and we also wanted to highlight the importance of language and/or communication. Children who are learning a second language also often have the intention to communicate and pictograms can be a decisive tool in the process as an additional support.

Keywords: Alternative and Augmentative Communication Systems (AACs), pictograms, communication, second language, Infant Education.

RÉSUMÉ

L'objectif de ce projet de fin d'études est de faire prendre conscience de la possibilité d'utiliser un système de communication alternatif, tel que les pictogrammes (qui deviennent de plus en plus populaires de nos jours) comme stimulant pour l'acquisition d'une seconde langue en éducation préscolaire. D'une part, un questionnaire a été élaboré pour analyser les idées qui existent dans la société sur l'utilisation des CDA afin de prendre en compte les préjugés existants sur les CDA. D'autre part, bien que les pictogrammes soient utilisés avec des enfants et des adultes présentant des troubles du langage, dans ce travail, l'utilisation des pictogrammes n'est pas associée à des troubles du langage, mais au processus d'apprentissage d'une seconde langue de deux enfants en éducation préscolaire. La communication est essentielle et nous avons également voulu souligner l'importance du langage et/ou de la communication. Les enfants qui apprennent une seconde langue ont aussi souvent l'intention de communiquer et le pictogramme peut être un outil décisif dans ce processus en tant que support supplémentaire.

Mots-clés: Systèmes de communication alternative et améliorée (SACA), pictogrammes, communication, deuxième langue, Éducation de la petite enfance.

AURKIBIDEA

| | |
|--|-----------|
| <u>SARRERA</u> | 5 |
| <u>INTRODUCCIÓN</u> | 6 |
| 1. <u>MARKO TEORIKOA</u> | 8 |
| 1.1. <u>Komunikazioa eta honek duen garrantzia</u> | 8 |
| 1.2. <u>Komunikatzeko Sistema Alternatiboak</u> | 12 |
| 1.2.1. <u>Definizioa</u> | 12 |
| 1.2.2. <u>Sailkapena</u> | 12 |
| 1.2.3. <u>Komunikatzeko Sistema Alternatiboei buruzko mitoak</u> | 15 |
| 1.3. <u>Piktogramak</u> | 18 |
| 1.4. <u>Bigarren hizkuntza bat ikastea</u> | 21 |
| 1.5. <u>Hizkuntza nahasmenduen prebentzio plana</u> | 26 |
| 1.6. <u>Koronabirusak hizkuntzan izan duen eragina</u> | 31 |
| 2. <u>MARKO PRAKTIKOA</u> | 33 |
| 2.1. <u>Galdetegia</u> | 33 |
| 2.1.1. <u>Helburua</u> | 33 |
| 2.1.2. <u>Metodologia</u> | 33 |
| 2.1.3. <u>Partaideak</u> | 34 |
| 2.1.4. <u>Emaitzak</u> | 34 |
| 2.2. <u>KSAen erabilera eskolan</u> | 39 |
| 2.2.1. <u>Entzumen eta Mintzairaren espezialistaren saioak</u> | 39 |
| 2.2.1.1. <u>Helburua</u> | 39 |
| 2.2.1.2. <u>Metodologia</u> | 39 |
| 2.2.1.3. <u>Partaideak</u> | 41 |
| 2.2.2. <u>Piktogramak egunerokoan</u> | 43 |
| 2.2.3. <u>Marko praktikoaren emaitzak</u> | 44 |
| <u>ONDORIOAK</u> | 45 |
| <u>CONCLUSIONES</u> | 46 |
| <u>ERREFERENTZIAK</u> | |
| <u>ERANSKINAK</u> | |

SARRERA

Komunikazioa gizakiarentzat ezinbestekoa den zerbait da. Harremanatzen garen izaki bizidunak gara, etengabeen besteekin egoteko beharra dugu, besteekin harremanatzeko, besteei gure kezka, iritzi eta zalantzak adierazteko, emozioak azaleratzeko... eta ezin dugu ekintza hauek egin gabe bizi. Modu batean edo bestean, baina gure helburua, beti da komunikatzea.

Baina, zer gertatzen da komunikatzeko gai ez garenean? Kasu batzuetan, komunikatzea ez da hain gauza erraza eta sinplea. Oso frustrantea den egoera bat da, komunikatzeko gogoia izatea eta ezintasunak jota, komunikatzeko gai ez izatea. Zoritxarrez, pertsona batzuei gertatzen zaien zerbait da. Orokorrean, Espekto Autistaren Nahastea, garun paralisia, mintzaira eta hizkuntza prozesuan inplikaturik dauden organoen funtzionamendu okerra... duten pertsonak izan ohi dira, besteak beste.

Kontuan hartu behar da ere, zein komunikazio mota den, hau da, hitzezkoa ez bada ere, komunikatzeko beste mota batzuk ere badaudela. Kasu askotan, komunikatzeko beste modu batzuk edo laguntza gehigarri bat behar denez, Komunikatzeko Sistema Alternatiboak (KSA) ezinbesteko tresna bilakatzen dira.

Esku artean daukagun Gradu Amaierako Lan honetan piktogramak ardatz gisa hartzea erabaki da, hauek sortzen duten interesa dela eta. Hauen erabilera orokorrean hizkuntzaren nahasteekin lotu izan ohi da. Lan honi esker, piktogramak beste erabilera bat izan dezaketela frogatu nahi izan da. Eskola praktikak egindako eskolan, piktogramak hizkuntza sustatzaile gisa ere erabiltzen dira, bigarren hizkuntza bat irakasteko zehazki.

Gradu Amaierako Lan honetan, Komunikatzeko Sistema Alternatiboak aztertuko dira. Horretarako, galdetegi bat sortu da, gizartearen KSA-eiko dauden ideia eta aurrezagutzak aztertzeko asmoz. Ondoren, piktogrametan zentratu da, marko praktikoa piktogramak izan baitira tresna nagusia. Bi kasu praktiko aztertuko dira, Haur Hezkuntzan dauden bi haur, bakoitzak bere ezaugarriak dituelarik. Hala ere, bi haur hauek gela berdinean ikasten dute, eta beraz, astean behin bada ere, eskolako entzumen eta mintzairako irakaslearekin saio bat egiten dute elkarrekin.

Komunikatzeko Sistema Alternatiboak ez dira soilik hizkuntzarekin lotutako nahasteak daudenean erabiltzen. Beste hainbeste erabilera ere izan ditzakete. Jarraian ikusiko den bezala, piktogramak, bigarren hizkuntza eskuratzeko estimulatzaile gisa ikusiko

ditugu. Aztertuko diren bi kasuetan, haurrak duten ama hizkuntza eta eskolan ikasten duten hizkuntzak ez du bat egiten.

INTRODUCCIÓN

La comunicación es algo imprescindible para los seres humanos. Somos seres vivos que nos relacionamos, tenemos la necesidad de estar con los demás constantemente, de relacionarnos con los demás, de expresar a los demás nuestras inquietudes, opiniones y dudas, de hacer aflorar nuestras emociones y no podemos vivir sin realizar estas acciones. De una manera u otra, nuestro objetivo siempre es comunicar.

Pero, ¿qué pasa cuando no somos capaces de comunicarnos? En algunos casos, comunicarse no es algo tan sencillo. Es una situación muy frustrante, tener ganas de comunicarse y ser incapaz de poder hacerlo. Desgraciadamente, es algo que pasa a algunas personas. Generalmente se trata de personas con TEA, parálisis cerebral y funcionamiento incorrecto de los órganos implicados en el proceso lingüístico y lenguaje entre otros.

También hay que tener en cuenta qué tipo de comunicación es, es decir, que aunque no sea verbal, también hay otros tipos de comunicación. En muchos casos, la necesidad de otras formas de comunicación o de un apoyo adicional hacen que los Sistemas Alternativos de Comunicación (SAAC) se conviertan en herramientas imprescindibles.

En este Trabajo de Fin de Grado que tenemos entre manos, se ha optado por centrarse los pictogramas, dado el interés que generan. Aunque su uso se suele asociar generalmente a trastornos del lenguaje, en este trabajo se ha querido demostrar que los pictogramas pueden tener otro uso. En la escuela en la que hemos realizado las prácticas escolares, los pictogramas se utilizan también como promotora de la lengua, concretamente para enseñar una segunda lengua.

Por lo tanto, se analizarán los Sistemas Alternativos de Comunicación. Para ello, se ha creado un cuestionario con el objetivo de analizar las ideas existentes en la sociedad sobre los SAAC. Posteriormente, se ha centrado en los pictogramas, ya que el principal instrumento en el marco práctico han sido los pictogramas. Se estudiarán dos casos prácticos, dos niños de Educación Infantil, cada uno con sus propias características. Estos dos niños estudian en el mismo aula, por lo que, aunque sea una vez a la semana, realizan una sesión conjunta con el profesor de audición y lenguaje de la escuela.

Los Sistemas Alternativos de Comunicación no sólo se utilizan cuando existen trastornos relacionados con el lenguaje. También pueden tener otros tantos usos. Como se verá a continuación, veremos los pictogramas como estimulantes para la adquisición del segundo idioma. En los dos casos que se van a analizar, la lengua materna que tiene el niño no coincide con la lengua que estudia en la escuela.

1. MARKO TEORIKOA

Marko praktikokoan murgildu ahal izateko, lehenik eta behin marko teorikoa azaltzea ezinbestekoa da. Lehenengo puntu honetan beraz, praktika laguntzen duen eta azaltzen duen teoria agertzen da, hala nola komunikazioa eta honek duen garrantzia, Komunikazio Sistema Alternatiboak (eta hauen definizioa, sailkapena eta hauekiko dauden mitoak), piktogramak (zehaztuta, praktikan erabiliko diren tresna baitira), bigarren hizkuntza bat ikasteak zer suposatzen duen, hizkuntza nahasmenduen prebentzio plana eta Koronabirusak hizkuntzan izan duen eragina, alegia.

1.1. Komunikazioa eta honek duen garrantzia

Argi dago hizkuntza ezinbestekoa dela gure gizartean. Izan ere, hizkuntzari esker, edozer gauza lortu daitezke, emozioak eta pentsamenduak adierazi ditzazkegu, inguruekin komunikatu gaitezke... gure egunerokoan oso presente dagoen zerbait da, eta horrela dio Vygotskyk (1934): *“El lenguaje es siempre, y al mismo tiempo, social e intelectual en su función”*.

Beraz, zer da hizkuntzarik ez duen pertsona bat izatea? Hori, hizkuntza barneratua dugunok imaginatu ezin dugun zerbait da. Gai honekiko ignorante hutsak gara, ez dugu informaziorik. Urte luzeetan zehar, hizkuntza barneratuta ez dutenak (arrazoi ezberdinengatik izan daiteke: gorrak, autistak, ez-gaitasun bat duten pertsonak...) “tentelak” direla pentsatu izan ohi da, baita gaitasun mentalak dituztela ere. Honela dio “El grito de la gaviota” liburuan E. Laborit-ek (1995): *“¿Acaso la sordera es una enfermedad vergonzosa?”*.

Hizkuntza ikasteak, aldi berean, gizabanakoa eraldatzen du, eta gauza berriak edo gauza horiek modu berri batean egiteko gaitasuna barneratzen du. Komunikazioa edota hizkuntza gaizki badoa, garapen intelektualean, sozialean, lengoaian edota emozioen kudeaketan eragina dauka. Gainera, hizkuntza horrekiko lotura edota ikaskuntza goiztiarra estimulu aberasgarria da. Honek, komunikazioarekin batera, adimena eta lengoia martxan jartzen ditu eta pentsamendua garatzen du.

Askotan ez gara ohartzen, baina hizkuntza ez izateak, pentsamenduan ere eragin izugarria du. Hizkuntzarik gabe ez baitago pentsamendurik. Beraz, lengoia eta hizkuntzaz gain, pentsamendua ere helarazi behar da. Hizkuntzarik eta pentsamendurik gabe, ezerk ez du zentzurik. Badakigu pentsamenduak eta hizkuntzak jatorri oso desberdinak dituztela, eta pentsamendu-sorta izugarria dagoela hizkuntza sortu baino askoz lehenago. Gizakiak ez du

adimen faltarik hizkuntzarik ez duelako, baina oso mugatuta dago bere pentsamenduaren esparruan.

“La idea (...) consiste en que yo quiero probarlo todo, verlo todo, comprenderlo todo. Y hacerlo sola.” (E. Laborit, 1995). Azken finean, hizkuntza izateak perspektiba eta ikasteko edo ekintzarako posibilitate berriak irekitzen ditu. Hizkuntza oso giza-trebetasun garrantzitsua da, etengabe erabiltzen baitugu. Bistan dago beraz, hizkuntza edota komunikazioa ezinbestekoak direla.

Beste modu batean esanda, hizkuntza gaitasun bat da, komunikatzeko oinarria. Gaitasun hau tresna bilakatzen da gizakiarentzat eta mundua interpretatzeko eta eraikitzeko ahalmena ematen digu. Zoritxarrez ordea, jada jakinaren gainean gaude eta badakigu, pertsona guztiak ez dugula hizkuntza barneratzeko gaitasun hori. Hala ere ideia hori aldatu beharra dago, aho-hizkuntzarekin lotzen baitugu. Hau da, pertsona askok hizkuntza barneratua dute, baina ez ahozko-hizkuntza. Hori horrela, Komunikatzeko Sistema Alternatibo desberdinak erabiltzeko aukera dago.

Veo una voz (O. Sacks, 1991) liburuan aipatzen den bezala, gorrak, duela gutxi arte, mespretxatuak izaten ziren, eta atzerapen mental bat zutela esaten zen. 1970ko hamarkadan ordea, De l'Epeek gorrentzako lehen eskola sortu zuen. Eskola horretan, irakasleek zeinu hizkuntza ikasi behar zuten eta pertsona gorrei irakatsi. Lan izugarria egin zen orduan, baina 1880an Milanen egindako kongresuan zeinu hizkuntza debekatu zen. Debeku hau, atzerakada handia izan da gorren historian, zeinu hizkuntza komunikatzeko ezinbesteko herramienta bat baita eta hori ere deuseztatu egin zuten.

Zeinu hizkuntza metodo eraginkorrena izan da gorrek hizkuntza barneratzeko orduan orain arte. O. Sacks-ek (1991) liburuan dioten moduan *“es un método tan fructífero que permitió por primera vez que los alumnos sordos corrientes pudiesen leer y escribir el francés y adquirir así una educación”*. Zeinuari esker ere, gorrek beren adimena garatzea posible izan da. Pierre Deslogesen kasua argia da: *“aunque muy inteligente, Desloges estuvo intelectualmente imposibilitado hasta que aprendió a hablar por señas.”* (O. Sacks, 1991). Horrek azaltzen du gor asko adimen-maila baxuagoko pertsonatzat har daitezkeela, baina, egia esan, huts egin duena hizkuntza bereganatzeko metodoa izan dela, eta keinu-hizkuntza hasieratik irakatsiko balie, beren adimena beste edonork bezala garatu ahal izango luketela. *“No hay nada más admirable y más digno de elogio que lo que libera las potencialidades de un individuo y le permite desarrollarse y pensar.”* (O. Sacks, 1991). Eta hau da, zeinu hizkuntzak gor askori ahalbidetu diona: hizkuntzari esker, pertsona bera,

garatu daiteke eta pentsatu. Izan ere, ez gara konziente izaten askotan, baina gogoeta egitea edota pentsatzeko ahalmena izatea ezinbestekoa da, bai norberarekiko bai besteekiko jarrera egokia izateko, elkar ulertzeko...

Gogorra da pentsatzea, lehen aipatu bezala, urte askotan zehar zeinu hizkuntza irakastea debekatua egon zela, eta oralismoaren defendatzaile sutsuak zeudela. Oralisten ustez, zeinu hizkuntzak pertsona gorrei, pertsona entzuleengandik urruntzen die eta aho-hizkuntzaren ikaskuntza prozesuan oztopo bat dela diote. Gorrak gizartean integratzeko modu bakarra hitz egiten ikasten edo ezpainak irakurtzen dela bultzatzen dute. Hori gutxi balitz, zeinu hizkuntza ez da hizkuntza bat bezala onartu eta primitiboa eta eskasa dela diote.

Beharrezkoa da esatea, zeinu hizkuntzak ez duela aho-hizkuntzaren ikaskuntza oztopatzen, ezta gorrak entzuleekiko aldentu ere, hau da, ez ditu gorrak besteengandik baztertzen. Berdina gertatzen da beste Komunikatzeko Sistema Alternatiboekin ere: sistema hauek erabiltzea ez dira desabantaila bat, abantaila baizik Hala aipatzen da Veo una voz liburuan:

“No hay pruebas de que hablar por señas obstaculice el aprendizaje del habla. En realidad, es más probable lo contrario.” (O. Sacks, 1991).
Horretaz gain, zeinu hizkuntza *“es algo completo en sí, tiene una sintaxis, una gramática y una semántica completa.” (O. Sacks, 1991).*

Laburbilduz, komunikatzeko arazoak dituzten pertsonentzat behintzat, sistema alternatiboen erabilerak hizkuntzaren ikaskuntza eraginkorrenak dira, aspektu garrantzitsuak, hala nola pentsamendua, hizkera, komunikazioa... garatzea lortzen baitute. Baina gaur egun dagoen arazorik nabarmenena gizartea da. Gizarteak eta gizarteko esparru desberdinak ez daude aho-hizkuntzaren galerari aurre egiteko prest.

Familiek duten eragina ere kontuan hartzekoa da. Batzuek ahozko hizkuntza sustatu nahi dute nola edo hala eta ez dute beste baliabideen erabilera egiten, esate baterako, KSAen erabilera egiten eta eredu oralista bultzatzen dute. Honek ordea alde txarrak ditu pertsonarekiko, Josephen kasuan bezala:

“Joseph estaba deseando comunicarse, pero no podía. (...). Sólo disponía de gestos, de la mímica y de un talento muy notable para el dibujo. (...). Joseph empezaba justo por entonces a aprender un poco de

lenguaje de señas, iniciaba una comunicación con los demás. Esto le proporcionaba, resultaba evidente, un gran gozo. (...). Volver a casa significaba para él, volver al silencio. (...). Significaba que le ignorarían, que volvería a no ser persona". (O. Sacks, 1991).

Josephek izugarrizko gogoia du komunikatzeko, baina ezintasun horrek komunikazioa eragozten dio. Eredu oralista inposatuz gero, agian Joseph inoiz ez litzateke komunikatzeko gai izango, berak keinuen bidez edota marrazkien bidez azaleratzen baitzuen dena. Baina zeinu hizkutzari esker, bere inguruko batzuekin komunikatzen zen. Etxera iristen zenean ordea, gurasoek eredu oralista bultzatzen zutenez eta berak ahoz komunikatzeko gaitasuna ez zuenez, isiltasunez betetzen zen eta besteengandik baztertua sentitzen zen horrexegatik.

Beste batzuek ordea, ez dute soilik ahozko hizkuntza sustatzen, baizik eta haurrak dituen beste gaitasun eta baliabideetan oinarritzen dira eta bide horretatik doan komunikazioa da nagusi. Hau da, familia batzuk, manipulazioan, ukimenean, ikusmenean... oinarritzen dira, mundua beste zentzumen batzuetatik pertzibitzea posible baita.

"Otras madres, por el contrario, transmiten un mundo en el que las cosas se ven, se tocan, se oyen, se manipulan con entusiasmo a través del lenguaje. Transmiten un mundo más amplio , más complejo y más interesante para los niños." (...). "Estas madres estimulan, pues, la formación de un mundo conceptual perceptivo lo estimula". (O. Sacks, 1991).

Guraso guztiek haien seme-alabentzat onena nahi dutela hori ez dago eztabaidatzerik. Denek nahi dute beren seme-alabak arazorik gabe jaiotzea eta kolpe gogorra da haientzat, adibidez, hizkuntzarekin lotutako nahasmendu batekin jaio direla esatea. Ziurrenik, egoera ahalik eta naturaltasun handienarekin eramaten saiatzen dira, Emmanuelle Laboriten kasuan ere gauza bera gertatzen delarik: bere gurasoei gorra dela esaten dietenean, gutxinaka bere eboluzioa ikusten joaten dira eta bere alabarentzako medio desberdinak bilatzen egon dira, bere adineko hurrekin konparatuz, ahalik eta bizitza "normalena" egiteko asmoz (E. Laborit, 1995).

Argi dago, pentsamendu hau aldatu beharra dugula eta jendeari denok berdinak garela ikusarazi behar diogu, guztiak berdinak gara baina desberdinak aldi berean, hori baita aniztasuna. Hau da, inor ez da besteak baina gehiago gorra ez delako, edota beste ezgaitasun bat duelako. Eta hemen, gizartean egin beharreko lan gogorra dugu. Enpatia

gehiago izan beharko genuke, eta laguntza gehiago eman. Gainera, ez da beharrezkoa mundua salbatzeko zerbait egitea, detaile txikiekin gauza asko lortu daitezke eta. Adibidez, telebistan/ordenagailuan... bideoak ikustean subtituluak agertzea, interprete gehiago egotea esparru desberdinetan, zeinu hizkuntza entzuleoi ere irakastea... gaiarekiko ezagutza gehiago izan beharko genituzke, elkar ulertzeko, bakoitzak bere egoera pertsonala baitu.

Gizarteari dagokionez, kontuan hartu behar dugu gizartean barneratuta egoteko komunikatzea beharrezkoa dela. Hau da, gizartean murgiltzeko ezinbestekoa da komunikatzeko sistema bat erabiltzea, denbora guztian elkarreraginean baikaude. Horregatik, sistema desberdinak beharrezko dituzten pertsonak integartzeko borrokatzea garrantzitsua da. Gainera, sistema alternatiboen aukera zabala da, pertsona bakoitzak egokiena dena aukera dezake berarentzat.

1.2. Komunikatzeko Sistema Alternatiboak

1.2.1. Definizioa

Komunikatzeko Sistema Alternatibo eta Handigarriak, ARASAAC web orrialdean Carmen Basilek azaltzen duen gisa, *Komunikazio Sistema Gehigarri eta Alternatiboak mintzamenaren bestelako adierazpideak dira, eta adierazpen-maila (handigarria) eta/edo pertsona batzuek arlo horretan dituzten komunikazio-zailtasunak konpentsatzea (alternatiboa) dute helburu.*

Arestian aipatu bezala, komunikazioa ezinbestekoa da edozein gizakirentzat. Ezin dugu besteekin komunikatu gabe egon, gure beharrak azaleratu, emozioak, ikasteko... eta komunikatzeko zailtasunak dituzten pertsonak komunikatzea posible izatea ahalbidetzen dute. Hori horrela, KSA-k erabiltzea ezinbestekoa da.

Sistema hauek behar izaten dituzten erabiltzaileak edota erabiltzaile ohikoenak garun paralisia, Espekto Autistaren Nahastea, afasia, traumatismo kraneoentzefalikoa, malformazio kraneoentzefalikoa, gaixotasun neuroprogresiboa, hizkuntza nahastea, garapen nahaste larria, gorreria, itsumena eta gor-itsumena duten pertsonak izan ohi dira. Ez ditugu ahaztu behar ere, hitz egiteko/komunikatzeko behar ditugun organoak inplikaturik dauden ebakuntza eta lesioak dituzten pertsonak ere.

1.2.2. Sailkapena

Sistema hauen sailkapenari dagokionez, ikus daiteke, bi multzo handitan sailkatu ditzazkegu. Alde batetik, laguntza behar ez duten KSA-k ditugu. Laguntza behar duten hauek beraz, euskarri fisikoen premia ez dutenak dira, material berezien premia ez dutenak

zehatz mehatz. Beste aldetik, laguntza behar dutenak dira. Besteak ez bezala, hauek euskarri fisikoak erabiltzea ezinbestekoa dute.

1. Taula

Laguntza behar ez duten Komunikatzeko Sistema Alternatiboak (Signbarreras, 2016).

| | |
|---|--|
| <p>Ezpainak eta aurpegia irakurtzea</p> | <p>Irakurketa modu hau oso sinplea da eta ezpainak eta aurpegiak egiten dituzten mugimenduei esker komunikatzean datza. Komunikatzeko nahasterik ez duten pertsonak ere erabiltzen dute beren egunerokoan. Elkarrizketa batean adibidez, orokorrean, aurpegian eta ezpainetan arreta jarri ohi dugu, transmititzen ari den mezua hobeto ulertzeko asmoz.</p> <p>Hitz osagarria den kontzeptua ere hemen sartu daiteke. Hitz osagarria edo <i>la Palabra Complementada (LCP)</i> kontzeptua, R. Orin Cornett, Washingtondeko Gallaudet unibertsitateko irakasleak sortu zuen <i>cuad speech</i> izenpean.</p> <p>Pertsona gor-sakontzat bideratuta dagoen metodoa da, beren entzunezko defizita edo galerak dituztenentzat bideratuta dagoena nagusiki. Oinarrizko erregela ezpainak berdina mugitzen diren soinuak taldekatzea da, eskuaren laguntza duelarik.</p> |
| <p>Daktilologia (Ikus I. Eranskina)</p> | <p>Letreiatze manuala. Idatzizko abezedarioak edo alfabetoak dituen letra bakoitzari dagokion eta eskuarekin egiten den "mugimendu"-ari dagokio.</p> |
| <p>Komunikazio bimodala</p> | <p>Ahozko sistema edo sistema oral da, bi kodigo desberdin txandakatzen direnak: hitzak eta zeinuak. Sistema honen gakoa, hitz egiten den bitartean zeinuak egitea da. Pisu gehien duen sistema hitzak dira, hitzak erdigune hartuta, zeinuak laguntza edo sustatzaile moduan erabiltzen dira. Pertsona gorren ala mutuen eta ez direnen artean komunikatzeko oso baliagarria da adibidez. Zeinu hizkuntzak ez bezala, ez dauka gramatika propio bat, hau da, sistema honek jarraitzen duen gramatika ahozko hizkuntzaren</p> |

| | |
|-----------------|---|
| | gramatika da. |
| Zeinu Hizkuntza | Zeinu hizkuntza keinuen bidez (izenak esaten duen bazala zeinuen bidez) komunikatzeko sistema da. Hizkuntza hau, orokorrean, mutismoa, entzumen desgaitasuna edo hizkuntza nahasteak dituzten pertsonak erabiltzen dute. Gaur egun, Zeinu Hizkuntzarekin eztabaida dago gizartean: Batzuen esanetan Zeinu Hizkuntza, izenak dioen bezala hizkuntza bat da eta ez Sistema Alternatibo bat. |

2. Taula

Laguntza behar duten Komunikatzeko Sistema Alternatiboak (Signbarreras, 2016).

| | |
|---|---|
| Irudiak | Piktogramen aurrekariak dira, argazki bereizgarriak edota fondo eta formari dagokienez, kontraste handia duten irudi handiak. Irudiak erabiltzen dituzten pertsonak, komunikazio arazo nabarmenak izan ohi dituzte. |
| Piktogramak (Ikus II. Eranskina) | Irudiak ere sistema oso bisuala eta sinpleak dira, baina piktogramak, sinboloak dira. Sinbolo hauek, kontzeptu eta objektu desberdinak errepresentatzen dituzte. Hitz bakoitzak bere pikto propioa dauka. |
| Bliss sistema (Ikus III. Eranskina) | 100 zeinu grafikok osatzen duten sistema da, elkarren artean konbinazioak eginez gero, hitz berriak sortzen dira. Modu horretan, metodo konplexu bat sortzen da eta kontzeptu edo/eta ideia berriak azalera posible izan da. |
| Braille sistema (Ikus IV. Eranskina) | XIX. Mendean sortu zuen Lous Braillek, itsuek eta gor-itsuek irakurmen eta idazmen prozesuan ere parte har dezaten. Sistema hau beraz, ez dago hizkuntzaren nahasmenekin lotuta, baina, azken finean, idazmen sistema alternatibo bat da. |
| Tabletak | Gaur egun, teknologia oso presente dago egunerokoan. Teknologiarri esker ere, komunikazioan hobekuntzak eta aurrerapenak egon dira, beste arloetan bezala. Tabletak ere beraz, komunikatzea ahalbidetzen dute, aplikazio anitzen |

| | |
|--|-------------------------|
| | laguntzarekin adibidez. |
|--|-------------------------|

1.2.3. Komunikatzeko Sistema Alternatiboei buruzko mitoak

Komunikatzeko Sistema Alternatiboak geroz eta ezagunagoak dira gure inguruan. Batez ere bere erabiltzaileek hagitx ongi dakite zein onura ekar ditzaketen haientzat. Izan ere, oso tresna aberatsk dira, mundu berri bat zabaltzen baitute. Hala ere, beste gai askotan bezala, ezjakintasunaren ondorioz edo, gizartean mito batzuk daude Komunikatzeko Sistema Alternatiboen inguruan ere. M. A. Ronski eta R. A. Sevcik (2005) egileek idatzitako artikuluan 5 mito nagusiri buruz mintzo dira: Komunikatzeko Sistema Alternatiboak hizkuntzaren eta mintzamenaren esku-hartzea egitean azken baliabide gisa hartzen dira, KSA-ek mintzamenaren garapena oztopatu eta zailtzen dute, haurrak edo KSA-en erabiltzaileak direnak erabili aurretik jakintza eta gaitasun batzuk barneratua izatea beharrezkoa da, gutxieneko adin bat dago KSA-k ezartzeko eta azkenik, ahozko produkzioak irudien sistemak baina eraginkorrak dira.

Hasteko, aztertuko dugun lehen mitoa, Komunikatzeko Sistema Alternatiboak hizkuntzaren eta mintzamenaren esku-hartzea egitean azken baliabide gisa hartzen direla da. Egia da, hasiera batean, Komunikatzeko Sistema Alternatiboak sortu zirenean, hauek azkeneko errekurtsio bezala erabiltzen ziren. Haurrak gutxi gora behera 8 urte bazituen eta hizkuntzaren garapena egokia ez bazen, orduan erabiltzen zen. Hala ere, orduztik, egoera asko aldatu da eta jada ez da horrela. KSA-k ez dira soilik hizkuntza edo/eta mintzamina falta denean eta atzeneko tresna bezala (Ronski; Sevcik, 2005). Izan ere, esku-hartze hori laguntza handia izan daiteke, osagarri gisa, komunikazioaren garapenean.

Hori gutxi balitz, funtsezkoa da sistema bat erabiltzea prebentzio gisa edota komunikazio-nahasmene/arazo bat gertatzea ekiditea. Horrekin esan nahi dena, KSA-k izenak dioen bezala alternatiba bat direla, hizkuntzarekin sortu edo izan daitezkeen arazoari aurre egiteko laguntza. Ez dira azken errekurtsio moduan erabiltzen. Geroz eta lehenago erabiltzen hasi, orduan eta eraginkorragoak izango dira, denbora gutxiago galduko baita eta esku-hartzea eraginkorragoa izango da.

Bigarren mitoa esaten duenez, KSA-ek mintzamenaren garapena oztopatu eta zailtzen dute. Askoren ustez, ezjakintasunaren ondorioz, beldurra izan ohi da KSA-en inguruan. Batez ere familia berrien, hau da, KSA-k erabiltzen hasi berriak diren familien ustez, sistema hauek erabiltzen badira, ahozko hizkuntzan oztopoak sortuko dira eta soilik

metodo hau erabiliko dute komunikatzeko. Horregatik, familia askok alternatibo hauek errefuxatzenedo ekiditen dituzte.

Horrek askotan eragin dezakeen kalteaz ez konturatzea edo jabetzea dakar. Beharrezkoa da mito hau desmitikatzea edota alde batera uztea. Esan beharra da, gai honen inguruan ez dagoela ikerketarik (egon badaude, baina ez asko) eta horrek familien arbuioa sor dezakeela. Ulertzekoa da sor daitekeen beldur hori, familiek beren haurrentzat onena nahi baitute eta KSA-en eraginkortasuna zalantzan jartzen dute. Edozein modutan ere, gaur egun gaiarekiko dugun eta aurkitu dezakegun informazioa dezente areagotu denez, geroz eta familia gutxiagok sinisten dute mito hau.

Jarraitzeko, haurrak edo KSA-en erabiltzaileak direnak erabili aurretik jakintza eta gaitasun batzuk barneratua izatea beharrezkoa dela uste da. Iraganean, adin goiztiarra zuten eta hizkuntzarekin nahasteak zituzten haur asko kaleratuta geratzen ziren, baztertuta. Horrek, KSA-k erabiltzeko aukera deuseztatzea zekarren. Hizkuntzaren garapen goiztiarrarekin bateraezinak ziren maila kognitibo eta sensoriomotorrek eragin zuten bazterketa hori. Oinarrizko trebetasun kognitibo batzuk hizkuntza garatzeko funtsezkoak direla argudiatu badaiteke ere, hizkuntzaren eta kognizioaren arteko lotura zehatza ez da argi zehaztu.

Beste autore batzuek zalantzan jartzen dute garapen kognitiboa hizkuntzaren garapenaren aurrekoa dela, baita komunikatzaile tipikoen garapenarena ere, komunikazio-esperientzia gaitasun kognitiboak hedatzeko tresna ere izan daiteke eta. Bestalde, hizkuntzak garapen kognitiboan duen eragina dela eta, adierazpen-hizkuntzaren gaitasunik ezak garapen-desabantaila argian jar dezake haur bat (Romski; Sevcik, 2005).

Romski eta Sevcik (2005) ondorioztatu zuten ezintasun sensoriomotore larriak dituzten haurrek ezin dituztela beren gaitasun kognitiboak erakutsi komunikatzeko modurik gabe. Beraz, ezinezkoa da argibide horiek azpimarratzea horretarako aukera ematen duten komunikabideak eman aurretik. Aldi berean, argi geratu da sortu daitezkeen mugimendu eta/edo komunikazio arazo larriek lehen haurtzaroko garapen kognitiboa mugatu dezaketela. Beraz, Komunikatzeko Sistema Alternatiboen bidez hizkuntza-trebetasunak garatzea oso garrantzitsua izan daiteke haur baten garapen kognitiborako.

Cressen eta Marvinen (2003) esanetan, haurren portaera eta ekintza naturalak dira alde aurretik dauden baldintza bakarrak. Haur guztiak, hasiera batean, bat-bateko portaeren bidez komunikatzen dira, beren egoerari edo inguruneari erantzunez, eta

haurren inguruan dagoenak portaera horiek interpretatzen ditu. Bakoitzaren erritmo propioa dela eta, haur guztiek ez dituzte komunikazio modu berdinak izaten (aurpegiko adierazpenak, oihuak eta beste ahots-seinale batzuk, esaterako) eta alerta-egoeran dauden haurrek ingurunekeo estimulu mota batzuek antzemateko erantzunak sortuko dituzte.

Komunikazio mota horrek inplikaturako solaskide edo lagun bat eskatzen du, solaskideak interpretatzen baitu haurren komunikazio-garrantzia edota zer den komunikatu nahi duen hori. Hala ere, haurren komunikazio goiztiarrak interpretatzeko zailak direnean, edota hizkuntzarekin lotutako nahasteak (edo hauen susmoa) detektatzen direnean, Komunikatzeko Sistema Alternatiboek esku hartzeko beharra hasten da (Cress; Marvin, 2003). Profesional batzuen joerak, KSA-k ebaluatzeko eta hauekin esku hartzeko alde aurreko gaitasunen beharra nabaria da. Hala ere, arlo horretan esperientzia duten profesionalak uste dute ez dagoela KSA-k erabiltzeko baldintzarik.

Bestalde, gurasoei beren erantzunak seme-alaben komunikazio-seinaleetara egokitzen uztea edo irakastea, adibidez, Komunikatzeko Sistema Alternatiboan esku-hartzetzat har daiteke. Komunikazio intentzionala, beraz, asmozko portaerak eta ingurunearen erantzunak dituzten esperientzietan oinarritzen da. Jokabide edo erantzun horiek nahikoa ez badira garapen egoki baterako, sistema alternatiboak erabiltzea, hau da, KSA-k, (edozein adin edo maila kognitibo izanik) justifikatuta egon daitezke (Cress; Marvin, 2003).

Hari beretik jarraituz, laugarren mitoa honako hau da: gutxieneko adin bat dago KSA-k ezartzeko. Romskiren eta Sevciken arabera (2005), ez dago ebidentziarik iradokitzen duenik haurrek adin jakin bat izan behar dutela KSA-en erabileraz baliatzeko. Hala ere, adin kronologikoa askotan aipatzen da hurrei alternatiba horiek ematearen aurkako aitzakia gisa. Zehazki, guraso eta profesional batzuek uste dute KSA-k, arestian aipatu bezala, adin goiztiarrean sartzeak saihestu egingo duela haur batek hitz egitea bere komunikazio-modu nagusitzat hartzea eta hitz egite horren ikaste prozesua oztopatuko duela. Lehen aipatu bezala, CAAREN esku-hartzea haurren lehen komunikazio-portaerak interpretatzen zailak direnean hasi behar da.

Cressen eta Marvinen esanetan (2003), KSA-k adin guztietan aplika daitezke komunikazio- eta jokabide-funtzioak ikasteko, bai eta komunikazio funtzionalerako ere, oraindik ikurra edo sinboloa komunikazio jardueraren erreferentzia gisa erabiltzen dela frogatu ez duten pertsonentzat.

Hizkuntza garatzeko beharrezkoak eta ezinbestekoak diren trebetasun aurre-linguistiko eta kognitibo batzuk eskuratzeko bidea dira KSA-rako sarbidea. Hori dela eta, funtsezkoa da KSA-k garaiz erabiltzen hastea komunikazioa goiz garatzeko (ahalik eta goizen) adierazpen-komunikazioaren nahasmenduak izateko arriskua duten haurren artean. Beste behin ere, profesionalen zeregina nagusitzen da, eta Cress eta Marvinek (2003) KSA-en sarrera goiztiarrari buruzko praktika edo aurreiritzi multzo bat aurkezten dute, haurrak adin goiztiarretan KSA-k erabiltzen duen esku-hartzetik kanpo uztea ekar dezaketenak:

- Komunikatzeko Sistema Alternatiboen ezarpena denboran zehar, ahozko komunikazioan etengabeko atzerapena izan arte, atzeratzea. Lehenengo zer gertatzen den ikusi eta gero ekintzara pasatzea, komunikazioa lehen haurtzaroan eskuragarri dauden modu guztien bidez maximizatu beharrean.
- KSA-k ezartzea komunikazio moduren bati uko egitea dela onartzea.
- KSA-k eskeintzen dituzten metodoak modu teknologiko edo sinbolikoak osatzera mugatzea, trebetasun tekniko edo sinbolikoen garapenak haur guztientzako jarraitutasun mailakatu batean aurrera egiten duela onartu beharrean.
- Haur batek, sistema hauek erabili ostean, onurarik atera ez duela ondorioztatzea, komunikatzaile guztiek arrakasta izan dezaten beharrezkoak diren rol, jardura eta bazkide multzo bat egokitu beharrean.

Azkeneko mitoak dioenez, ahozko produkzioak irudien sistemak baino eraginkorrak dira. Hori oso ideia okerra da. Argi dago, KSA-k erabiltzearen alderdirik garrantzitsua hauek komunikatzea posible izatea eragiten dutela da. Kontuan hartu behar da beraz, helburua edozein pertsonak, hizkuntza edo komunikazio nahasmen bat dutenak ala ez dutenak ere, komunikatzeko gai izatea da, besteekin harremanetarako, ideiak azalertzeko, sentimenduak adierazteko, norberak dituen beharrei buruz jakinarazteko... helburu hori argi izanda, beraz, garrantzitsua ez da ahozko produkzioa edo irudiekin komunikatzea, baizik eta komunikatzeko nahia, posibilitatea eta aukera egotea.


1.3. Piktogramak

Aintzinatik datorren kontzeptu bat da piktogramena. Funtsean, ohikotasunez zerbaiten zeinutzat hartzen den marrazki bat da piktograma bat. Orain dela gutxi onartutako definizio zehatzago batek, semiotikan oinarritutakoak, piktograma irudikapen ilustratutzat hartzen du eta gertakari konplexuak adierazten dituen sinbolo ikonikotzat hartzen ditu, ez hitzen edo soinuen bidez, esanahi-edukiontzari bisualen bidez baizik.

Piktogramen aintzindaria den hizkuntza, txinatar hizkuntza da. K. a. 1200. urtean jada, sinboloen itxurako zerbait hezurretan idazten zuten. Hezurretan idazteaz gain, kobazuloetan ere sinbolo eta marrazkiak egiten zituzten. Modu horretan, beren bizitza "idazten" zuten. Aipagarriak dira ere, Egiptoko hieroglifikoak, Mesopotamiako idazkera eta Maya glifoak.



1. Irudia: Shang Dinastiako hezurra, Lowell Georgia.



2. Irudia: Rosetta harriaren goiko zatiak duen detail

ea(<https://www.pixartprinting.es/blog/pictogramas-historia/>)

Beraz, iraganean atzera eginda, aspaldiko zerbait dela ikus daiteke, urte asko eta asko igaro dira ordutik eta, nahiz eta eraldatuz joan diren, jatorria bera da. XII. Mendean, familia aberatsen eskudoak sortu ziren. Eskudo hauek ere, familia bakoitza errepresentatzen zuten sinbolo edo irudiak ziren. XV. Mendean, inpretaren sorrera zela eta, liburuetan, binetak direlakoak sortu ziren.


Piktoen erabilera, geroz eta zabalduagoa zegoen. Adibidez, automobilen eta garraioen sorrera zela eta, hauek kontrolatzeko seinaleak sortu ziren. 1936an, Otto Neurath-ek, Rudolf Carnap eta Charles W. Morrisekin batera, ISOTYOPE (*International System of Typographic Picture Education*) sistema garatu zuten. Sistema hau, diagrama eta grafikoetan oinarrituta zegoen, baita testu eta ilustrazioetan ere. Esan daiteke, gaur egun ezagutzen dugun piktogramen kontzeptua, ISOTYPE sistemaren sorrerarekin hasi zela.

Piktogramak bigarren hizkuntza eskuratzeko estimulatzailer gisa Haur Hezkuntzan

Joku Olinpiarrekin ere, piktoen erabilera aberastu egin zen, kirol bakoitzari ere pikto bat egokitzen hasi baitzen.

Gaur egun, piktoak nonahi eta edonork erabil ditzake. Gure ingurua eta kaleak piktoez edo sinboloek beteak daude: segurtasun bideko arauetan (seinaleak), teknologietan (emotikonoak adibidez), piktoen sistema ezberdinak... Adibidez, ANA elkarteak Kukuxumusurekin kolaborazio bat egin zuen 2013. urtean, Nafarroako eraikin eta leku publikoak eta pribatuak, hala nola ile-apaindegia, ostalaritza, farmaziak, klinikak, liburutegia, haragitegia, kirol-klubak... piktogramez betezea helburu zutelarik.

Egitasmo hau, batez ere, TEA duten pertsonentzat zuzendu bazen ere, edozeinentzat erabilgarriak izan daitezke. Arrazoia edozein izanda ere, kokapenaren eta denboraren zentzurik ez dutenek, eta, beraz, ikusizko irudiak behar izaten dituzte beren jarduerak egiteko.



3. Irudia: Kukuxumusu eta ANA elkarteak egindako piktogramak (<https://autismonavarra.com/2013/07/kukuxumusu-disenara-nuestros-pictogramas/>)

Orokorrean, piktogramak autismoarekin edo garun paralisiarekin lotzen dira. Hala ere, piktogramen erabilera oso anitza da. Izan ere, piktoak irudiak dira eta maiz, jeneralean, pertsonok errazago egiten zaigu irudiak ulertzea. Oso bisualak dira, eta esanahia ulertuz gero, biziki onuragarriak dira. Bestalde, erabilera anitzak izan ditzake. Piktoak edozeinek erabiltzeko eskuragarri daude.

Jarraian aztertuko ditugun kasuetan, piktogramak hizkuntza sustatzaile gisa erabiltzen dira. Hau da, bi hurrek hizkuntza bat barneratuta dute, kasu honetan gaztelera, eta euskararen ikaskuntza prozesuan lagungarri izan dadin, piktoen bidez, euskara ikasten da: esaldien ordena, hiztegia... Horretaz gain, arreta falta duen pertsona batek ere erabiltzea oso egokia izan daiteke. Zergatik? Esan bezala, piktoak hain bisualak dira, zeinak oso ongi antolatzen lagundu ahal digutela. Adibidez, arreta falta duen haur bati ordutegia piktoekin jartzen badiogu eta ez hitzekin, modu errazago batean ulertuko du zein den egunean zehar egin beharko dituen gauzak, piktoek hitzak ordezkatzeko baitituzte.

1.4. Bigarren hizkuntza bat ikastea

Migrazioa gure gizartean oso presente dagoen gai bat da, eragin handia duena. Izan ere, etorkinek jatorrian dituzten kulturak, hizkuntzak, ohiturak... berarekin eramaten dituzte. Horrek, emigratzen duten herrialdean eragina izan ohi du, bertako kultura, hizkuntza eta ohiturekin bat ez datorrelako.

Hezkuntzaren esparruan ere gertarazten duen arlo bat da. Kontuan hartzekoa da, hezkuntza sistemak edozein haur, edozein egoeratan dagoela eskolarizatzeko eskubidea duela. Honek, etorkinak diren haurrak eskolarizatzeko dakar eta gerta daiteke, ikasleriak hizkuntza ezaguerak barneratuta ez izatea. Horretaz gain, beste errealitate mota bat dagoela ere aipatzekoa da. Batzuetan, etorkinak haurrak eta helduak izan ohi dira, baina beste kasuetan, gure herrialdean jaiotako eta guraso etorkinak diren haurrak ere badaude, hauda, gurasoak etorkinak direnak baina haurrak ez.

Haur hauek, bere adineko beste hurrekin batera Haur Hezkuntza hasten dute, ama hizkuntza desberdin batekin. Ziur aski, guraso etorkinak dituen haur honek etxean, eskolan hitz egiten ez den hizkuntza erabiliko dute: arabiera, ingelesa, errumaniera, frantsesa... eta hezkuntza sisteman sartzen direnean, beste hizkuntza berriekin egiten dute topo, hemen euskararekin adibidez. Hau, izugarritzko erroka da irakasle eta eskolako langileentzat, etapako behar kurrikularrak asetzeaz arduratzeaz gain, arlo linguistikoa barne, hizkuntza berri bat (haurarentzat ezezaguna dena) ikasten hasi berri den haurarekin topo egiten dute.

Haur Hezkuntza borondatezko hezkuntza-maila da, hau da, ez da derrigorrezkoa eta haurra jaiotzen denetik, 6 urte betetzen dituen arte irauten du. Zailtasun puntu bat du etapak berak eskatzen dituen eduki kurrikularrak irakastea edo lantzea gure hizkuntza barneratua ez duen haur bati. Kasu batzuetan, hizkuntza bera barneratua dutenei ere kosta egiten zaie, beraz, imaginatu horretaz gain, hizkuntza barneratuta ez duzula eta ez duzula esaten dutena bat ere ulertzen. Gogoan hartu behar da ere, adin hauetako haurrak beren etxeetatik ateratzen diren lehen aldia dela, ingurugiro berri batean, heldu eta haur berri batzuekin, arau berriekin... beren egunerokotasunaren zati handi bat beraien konpainiarekin igaroko dutelarik.

Horrela ba, komunikatzeko gaitasun falta dela eta, haurrak gelaren eta errutinen erritmoa jarraitzeko ahalmenaren galera eta gainontzekoekin komunikatzeko abilezia ez izatea dakar. Hori gutxi balitz, komunikatu ezin izateak frustrazioa sorrarazi dezake eta horren ondorioz, jokabide desagokiak sortu ditzake, hala nola arreta falta, urduritasuna, jarrera okerrak, ingurua molestatzea arreta deitzeko asmoz...

Hainbat autorek hizkuntzaren jabekuntza, hau da, ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuari buruz, teoria desberdinak formulatu dituzte, hala nola B. F. Skinnerrek, N. Chomskyk, J. Piagetek, L. Vygotski edo J. Brunerrek. J. J. Zubirik teoria hauek bildu zituen 2003an, Nafarroako Unibertsitate Publikoak argitaratutako Huarte de San Juan aldizkari 6. zenbakian.

Hizkuntzaren jabekuntzari eta garapenari buruzko teoriak eskola desberdinen edota ikertzaile bakoitzaren ikuspuntuaren arabera izan dira, hiru ikuspuntu bereiz daitezkelarik: ikuspuntu biologikoa, ikuspuntu sozala eta ikuspuntu psikologikoa (Zubiri, 2003).

B. F. Skinner estatubatuarrak ikuspegi psikologikoaren ikuspuntua defendatzen zuen. Haurra *tabula rasa* bat da eta imitazioaren bidez ikasten du. Berak ez du ez gramatikaren ez hizkuntzaren jatorria azaltzen, baina bere esanetan, haurrak erantzun bat erreproduzitzen du baldin eta horrek errefortzu bat eragiten badu. Konduktismoaren sortzaileak, bi baldintzapen mota bereizten ditu, baldintzapen klasikoa eta operantea. Baldintzapen mota hauek ere hizkuntzan eragina dute, arestian aipatu bezala, hauek sorrazten dioten erantzunaren arabera erreproduzitzen baitu.

N. Chomskyk estatubatuarrak berriz, ikuspegi biologikoaren ikuspuntua defendatzen zuen. Bere ustetan, espezie bakoitzak funtzio kognitibo berezia du, sortzekoa dena.

Horretaz gain, gizakiak, gramatikala unibertsala, printzipio edo hastapen unibertsalak edota Hizkuntza Jabekuntzaren Mekanismoa (HJM) ditu. Hauek sortzetikoak dira, herentziaz jasoak. baina inguruaren eraginez honek aktibatzen eta moldatzen ditu. Urte bat dugunetik 4 urte ditugun arte, edota 6 urte ditugunetik 10 urte betetzen ditugun arte, bi tarte horiek, aro kritikoak dira hizkuntzari dagokionez.

J. Piagetek ez zuen ikuspegi biologikoa ez psikologikoa defendatzen, baizik eta bien arteko nahasketa bat defendatzen zuelarik, hala nola, ikuspegi biologiko-psikologikoa. Ikaskuntzaren teoria konstruktibistan sinesten zuen: haurrak hizkuntza egozentrikoa du eta errepikapenak, bakarrizketak eta bakarrizketa kolektiboak egiten ditu eta poliki-poliki hizkuntza sozializatura igarotzen da. Haurrak, kanpotik hartzen duena bere barruan eogkitzen du, hizkuntza sistema eraikiz. Garapenean garrantzia duten bi etapa bereizten ditu, garai sentorio-motorra (0-2) eta eragiketa-aurreko garaia (2-7).

L. Vigotskyk ikuspegi soziala defendatzen du, hizkuntza soziala dela eta gero, barneratzen joaten dela. Pentsamenduak eta hizkuntzak jatorri ezberdinak omen dituzte, baina gero batu egiten dira. Prozesu hori helduak gidatzen du, haurrak hasiera-hasieratik komunikatzeko asmoa baitu. Gutxinaka, hizkuntzaren eraginkortasunaz konturatzen da.

Azkenik, J. Bruner dugu, ikuspuntu biologiko-soziala defendatzen duena. Komunikazio saioak hizkuntza bilakutzen direla dio, negoziazioaren bitartean egiten delarik. Negoziatio horretan helduak ere parte hartzen du eta haurrari forma linguistikoak eta forma kulturalak eskaintzen dizkio. Izan ere, haurraren inguru ohikoa egituratuta, ordenatuta eta antolatuta dago eta kontzeptu franko ingurutik ikasten ditu.

Hizkuntzaren jabekuntzaren etapei dagokienez, bi etapa bereizi ditzakegu: etapa linguistikoa eta etapa aurre-linguistikoa. Garrantzizkoa da, haurrak garapen "normala" izatea. Honekin esan nahi dudana, haur bat bere erritmoan bada ere, hizkuntzaren jabekuntzaren prozesua egoki egiten egotea garrantzitsua dela. Izan ere, ikasten duten lehenengo hizkuntza, ama-hizkuntza da eta hizkuntza hori ere egoki barneratu behar dute. Bestela, nola ikasi edo barneratu behar dute bigarren hizkuntza bat, lehenengo hizuntzaren jabekuntzaren garapena egokia ez bada?

Bestalde, haurrak, komunikazio premia bezala, hizkuntza besteekin harremanatzeko edota bere mundua azalertzeko ulertzen du. Beraz, hiru kategoria desberdinetan murgiltzen da: soziala, eskolarra eta emozionala. Hauentzat hitz berriak eta esanahi berriak barneratu beharko ditu haurrak, hizkuntza berri bat barneratzen ari den bitartean Bertako

hizkuntza kontrolatzen ez duen haurren kasuan, eskolarizatzeko komunikatzeko premia berriekin kontaktuan jartzea esan nahi du, bi hizkuntzak elkar gurutzatzen diren heinean.

Jabekuntza hau prozesu natural eta inkontzienteetara lotuta dago, haien bidez komunikazio konpetentzia garatzen delarik. Ikaskuntza berriz, ikasleak kontzienteki egiten duen prozesua izango litzateke, ikaslea bera ama-hizkuntza ez duen beste hizkuntza bat aurre egiten dionean, halaber.

U. Ruiz Bikandik (2000) prozesu honetan eragiten duten faktore batzuk zehaztu ditu:

- *Input*-ak (ikasleak, ikasten ari den bigarren hizkuntzan irakasleengandik eta bere inguruko pertsonengandik jasotzen duen emari linguistikoa) eta *output*-ak (bigarren hizkuntzan egiten den produkzioa).
- Behin behineko sistema linguistikoa etengabe eraldatzen dago. Horrek, ama-hizkuntzaren eta ikasten ari den bigarren hizkuntzaren artean interferentziak egotea dakar.
- Beste faktore batzuk ere eragiten dute, hala nola, kognizioarekin eta afektibitatearekin lotuak daudenak. Bi faktoreak eragina dute, baina garapen eta konfigurazio prozesu batean daude. Ez dugu ahaztu behar, haurren adinak munduarekiko duen jakintza edota gaitasun motorea baldintzatzen duela.

Erabakigarriak diren eta Haur Hezkuntzako etapako ezaugarria direnak aipatzea ere beharrezkoa da: haurrek duten karaktere xurgatzailea (beren arreta etengabe eskatzen baitute), kontzentrazio maila baxua (denbora luzean kontzentrazioa mantentzeko gaitasun urria), beren izaera indibidualista eta lehiakorra, beren burua protagonista izatea eta berari buruz hitz egiteko etengabeko gogoia, bere inteligentzia maila edota periodo isil posible baten existentzia.

Modu berean, gogoan izan behar dugu ikasten ari den bigarren hizkuntza hori, euskara esaterako, eskolan erabiltze beharrezkoa izateaz gain, bere inguruan, gizartean... ere erabili beharko da. Hori horrela izanda, eskola, kasu gehienetan, bigarren hizkuntza hau ikasteko esparru bakarra bilakatzen da.

Bestetik, hainbat enfoke edo ideia goraiatzea ezinbestekoa da:

- Ikaslea ikaste-irakaste prozesuaren zentru edo erdigunea da.
- Ebaluazioa ez da amaierako produktu bezala baloratzen. Garrantzitsuena, haurrak egin duen prozesua baloratzea da.

- Hutsegiteak prozesuaren zati normal eta beharrezkoak dira. Prozesuaren inguruko informazioa jasotzen laguntzen dute, eta bi hizkuntzen artean gertatu daitezkeen gurutzaketak normalizatu behar dira (ikaskuntza prozesuan zehar).
- Afektibitatea, emozioak, oso beharrezkoak dira, egiten duten eragina izugarrikoa baita. Izan ere, positiboki (motibazioa handitzea) edo negatiboki (antsietatea sortzea) eragin dezake, eta hori erabakigarria izan daiteke jarraibidean zehar.
- Kanpo eragileak: inguruarekiko harremana, testuingurua, ikaskuntza prozesuan duen egoera, ama-hizkuntzatik bigarren hizkuntzara dagoen hurbiltasuna.
- Barne eragileak: ama-hizkuntza, jakinduria kognitiboa, munduarekiko duen jakinduria edota jakinduria metalinguistikoa.
- Eragile indibidual edo pertsonalak: adina, pertsonalitatea (izateko era), inteligentzia.
- Ikaskuntza prozesu aktibo, funtzional eta eraginkor batengatik apostu egiten da.

Margarita I. Asensio Pastorrek (2018) Doblele aldizkarian argitaratu zuen artikuluan, bigarren hizkuntza bat lantzeko kontuan hartu daitezkeen hiru orientazio metodologiko azaltzen ditu.

Hasteko, ludika edo jolasa aipatzen du. Jolasa ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan laguntzen duen tresna bat da, ikasleari jakintza berriak sortzen laguntzen diona. Gela barruan egiten diren jolasetatik, jolas sozialak, rol jolasak eta jolas performatiboak ditugu.

Jolas sozialei dagokienez, kooperazioa, kolaborazioa eta interakzioa eskatzen dutenak dira. Garrantzitsuak dira, batik bat, besteekin harremanatzea beharrezkoa izateaz gain, negoziazioa eta erabakiak bere gain hartzea da, jolasaren helburua betetzeko asmoz. Bestetik, taldea sortzeko baliagarriak dira, elkarren artean harremanatzea eskatzen duelako. Komenigarria izan daiteke beti talde desberdinak egitea, taldeak aldatzeko eta elkarren artean gehiago ikasteko.

Rol jolasei dagokienez, ikasleek bizitza errealeko egoerak dramatizatu eta antzezten dituzte. Modu honetan, egoera errealak sortzen dira, baita bertan erabiltzen den komunikazioa ere. Horrela, ikasleak, besteekin komunikatu beharko du, jolasa posible izateko.

Jolas performatiboak ditugu azkenik. Jolas hauek abesti eta eszenifikazioekin dute lotura. Hauek jarduera psikomotore, letra ikasteko memoria eta mugimendua eskatzen dute. Oso motibagarriak dira, orokorrean, haurrei asko gustatzen zaizkienak.

Bigarrenik, ulermen, adierazpen eta interakzio oralaren garapenean enfasia edo gogoia jartzea da. Ez da ahantzi behar Haur Hezkuntzako ikasleria prozesu bikoitz bateko formakuntzan dagoela, ama-hizkuntza barnertzen ari den bitartean (ama hizkuntzaren maila hobetzen) bigarren hizkuntza bat ikasten ari dela. Horregatik, irakasleak *input* aberatsa eskaini beharko luke, hitza laguntzen duen estimulazio bisualaren laguntzarekin. Horrela, hitzik gabeko hizkuntzari edo hizkuntza ez-berbalari mesede egiten dion eta hitzaren euskarri den lanketa egin beharko da ere.

Hizkuntza edota hizkuntzaren hiztegia lantzea funtsezkoa da, lexiko mugatua badu. Beste kasu batzuetan gertatzen dena, lexikoa azkar ikastea eta barneratzea da. Hala ere, horrek ez du ezer esan nahi, askotan, azkar ikasten dena azkar ahazten baita. Horregatik, eguneroko lanketa konstantea eskatzen du, hiztegi hori behar duten komunikazio egoerak sorraraziz eta haurrak modu horretan, hiztegi hori erabiliko du.

Azkenik bitartekaritza edo bitartekotzari buruz mintzo da, hizkuntza desberdinak elkarrekin elkarbizitzen dute testuinguruetan garrantzi handia baitu. Ohikoa da hezkuntza giroan etorkinak diren familiak edota familiako kide bat etorkina den eta horien seme-alabak diren ikasleak egotea. Hori horrela, irakaslegoak elkarlanean aritzeak izugarritzko garrantzia du, bitartekari lanetan aritzeko. Kontuz ibili behar da ere, bigarren hizkuntza ikasten ari diren ikasleei beren ama hizkuntza zensuratzea edo debekatzea. Lortu nahi dena, bigarren hizkuntza ikastea eta hau erabiltzea da, eta ez nazka hartzea edota arbuiatzea. Teknika ona izan daiteke, esate baterako, elkarren artean berdinak direnekin tutoretzak egitea. Haurrek bere berdinekin ikasten dute gehien. Beraz, garapen linguistikoan kolaboratzen du.

1.5. Hizkuntza nahasmenduen prebentzio plana

Ikasturte honetan, ikastetxeek duten eginbeharretako bat, eskolako hizkuntza prebentzio plana sortzea izan da. Horretarako jarraitu de legedia honako hau da: *250/2021 EBAZPENA, ekainaren 15ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen dituzten ikastetxe publikoen antolaketa eta funtzionamendua 2021-2022 ikasturtean arautuko dituzten jarraibideak.*

Gauzak horrela, jarraian mintzatuko garen hizkuntza prebentzio plana, Ibarberri ikastetxeko hizkuntza plana izango da. Justifikazio legalari dagokionez, hainbat ideia gorai patzen dira:

- "Ikastetxeak prestatzen duen aniztasunari erantzuteko urteko planaren baitan, lengoaiaren prebentziozko programa sartuko da. Hezkuntza Departamentuko Inklusio, berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzura igorriko da plan hori aurrean, urriaren 31 baino lehen."
- "Especialistek (PT, EH, Lehen Hezkuntzako laguntza irakasleak) partekatutako ikaskuntza gauzatuko dute, aukera ematen baitu, zenbait helburu indartzeaz gain, ikaskuntza komuneko prozesuan ikasle guztiek parte hartzeko. Aniztasunari erantzuteko urteko planean jasoko da."
- "Ildo beretik, Entzumena eta Hizkuntzako irakasle espezialistaren eta irakasle tutoreen parte-hartzearekin, ikastetxeek Haur Hezkuntzako taldeei eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei zuzendutako prebentzio programak garatu beharko dituzte, ikasle horiek hizkuntza gaitasunaren arloan dituzten beharrei erantzuteko."
- "Entzumena eta Hizkuntzako irakasle espezialistak eta gainerako irakasleak lankidetzan arituko dira programa hau garatzeko. Baterako plangintza testuinguruan kokatua izango dute abiapuntu, ikasgelako programazioan oinarritua, hizkuntza edukiak modu sistematikoan eta kontzientean lantzeko. Prebentziozko programa horrek bidea emanen du beharrik detektatzeko umeetan."
- "Salbuespen gisa ohiko ikasgelatik kanpo laguntza ezarri beharra justifikatu behar denean, honako hauek zehaztuko dira: erabaki horren arrazoia eta xedea, lortu nahi diren helburuak eta testuinguru arruntean horiei erantzuteko dagoen ezintasunaren zergatia. Era berean, zehaztu egingen da zenbat denborarako aurreikusi den esku-hartzea, kontuan hartuz ikasgelatik kanpoko saio kopurua ahalik eta txikiena izan behar dela."

Irakurketa-idazketaren ikaskuntza, aho-hizkuntzan oinarritzen da, beraz, ahozkotatasunaren oinarriak landu behar dira hizkuntza idatzia zailtasunik gabe gauzatzeko. Horregatik, ezinbestekoa da ikastetxeetan aho-hizkuntzaren irakaskuntza egituratua egitea. Lehen Hezkuntzan irakurketa-idazketa prozesuak arrakasta izan dezan ezinbestekoa da Haur Hezkuntzatik irakurketa eta idazketaren aurrebaldintzak lantzea.

Irakurketa-idazketaren aurrebaldintzak, haur batek irakurketa-idazketaren ikaskuntza arrakastatsua bermatzeko eskuratuta izan beharko lituzkeen oinarriko gaitasunak dira (6-7 urte bitartean). Prozesu honetan garunaren 2 hemisferioek batera lan egiten dute, beraz,

Irakurketa-idazketarekin hasten garenean ikasleen garuna prest egon behar da, hau da, zenbait funtzio eta zonalde garatuta izan behar ditu. Horregatik da hain garrantzitsua 6 urte arte idazten eta irakurtzen erakutsi beharrean oinarrizko gaitasunak lantzea, ikaslea prozesu horretarako prestatuz.

Prebentzio planean aipatzen da, gaitasun fonologikoak landuko direla baina prozesu honetan gaitasun fisikoek duten garrantzia ere aipatzea ezinbestekoa dela. Kontzientzia fonologikoa lantzeko beharraren arrazoiak, honako hauexek izan daitezke:

- Irakurketa errendimenduan hobekuntzak dakartza, bai eta irakurketan zailtasun espezifikoak izateko arriskua duten umeengan ere.
- Zailtasunen prebentzioa.
- Zailtasunak goiz detektatzeko aukera ematen du. Honek, goiz esku hartzeko aukera ematen duelarik eta zailtasunen inpaktua gutxitzen duelarik.
- Euskaraz eta gaztelaniaz kontzientzia fonologikoaren irakaskuntza berdina da, bi hizkuntzek fonetika gardena dutelako, hau da, idazketa eta ahoskera oso antzekoak dira.

Haur Hezkuntzan sakonduz, ikasmaita bakoitzak ere helburu espezifiko edota zehatzak ditu, maila bakoitzean desberdinak direnak:

3. Taula

Ikastetxeko Prebentzio Planean Haur Hezkuntzako 1. mailan dituen helburu espezifikoak (Bengoetxea, I. 2022).

| | |
|--------------------------|---|
| Entzumen diskriminazioa | - Entzumen diskriminazioa |
| Olerkiak mugimenduarekin | - Errutinak - Olerki pasiboak - Behatz jolasak |
| Aho hizkuntza | - Entzumen memoria - Entzumen ulermena. - Lexiko-semantika - Morfosintaxia |
| Kontzientzia fonologikoa | - Kontzientzia lexikoa |

4. Taula

Ikastetxeko Prebentzio Planean Haur Hezkuntzako 2. mailan dituen helburu espezifikoak (Bengoetxea, I. 2022).

| | |
|--------------------------|---|
| Entzumen diskriminazioa | - Entzumen diskriminazioa |
| Olerkiak mugimenduarekin | - Errutinak - Olerki pasiboak - Behatz jolasak |
| Aho hizkuntza | - Entzumen memoria - Entzumen ulermena. - Lexiko-semantika - Morfosintaxia |
| Kontzientzia fonologikoa | - Kontzientzia lexikoa - Kontzientzia silabikoa |

5. Taula

Ikastetxeko Prebentzio Planean Haur Hezkuntzako 3. mailan dituen helburu espezifikoak (Bengoetxea, I. 2022)

| | |
|--------------------------|---|
| Entzumen diskriminazioa | - Entzumen diskriminazioa |
| Olerkiak mugimenduarekin | - Errutinak - Olerki pasiboak - Behatz jolasak |
| Aho hizkuntza | - Entzumen memoria - Entzumen ulermena. - Lexiko-semantika - Morfosintaxia |
| Kontzientzia fonologikoa | - Kontzientzia lexikoa - Kontzientzia silabikoa - Kontzientzia fonologikoa |

Metodologiari dagokionez, prebentzio saioetan jolas eta jarduera ezberdinak egingo dira eta elkarlanean sortuko dira beste momentu batzuetan ere irakasleek ikasleekin egin ahal izateko. Horretaz gain, hurrei irakurketa-idazketa prozesua lortzeko mota ezberdinetako sarbideak emango dizkiegu, ikasle guztien ikasteko estiloak aprobetxatuz, hauek zetzumenekin lotuta daudelarik. Hala nola, ikusmenarekin lotuta (fonemen pertsonaiak hizki bihurtuz), entzumenarekin (errimak eta ipuinak entzunez) eta sentitzearekin (gorputzarekin biziz).

Garrantzitsua da, 3 urteko gelatik hasiera-hasieratik. Era horretan, ikasleek behar bezalako egokitzapena izango dute eta gutxinaka-gutxinaka hizkuntza plan hori barneratzen joango dira haurrak. Ikastetxeko espezialistak dioenez, beharrezkoa izango litzateke, programa sistematikoa eta eraginkorra izateko, astean gutxienez 3 aldi lantzea. Posible izango balitz, gaitasun hauek lantzeko egunero tarte bat eskeintzea oso positiboa izan daiteke.

Ez da beharrezkoa izango jarduera berbera hiru modutan lantzea. Izan ere, talde bakoitzak bere ezaugarriak dituenez, taldearen arabera egokiena dena aukeratuko da. Jarduerak hiru modu deserdinetan aurkezten dira: ordenagailuan, paperean edo modu manipulatioban. Jarduerak aurrera eramaterako orduan, modua aukeratzeaz gain, taldekatzeak ere kontuan hartu behar diren gauza bat dira. Taldekatze motak desberdinak izan daitezke: talde handian, talde heterogeneoetan, talde homogeenetan, txokoetan edo giroetan, tailer espezifikoen edo lan indibidualean.

- Talde handian: irakasleak gidatuta taldeka edo bakarka parte hartzen dute.
- Talde heterogeneoetan: laguntzako irakaslea talde batzuetaz arduratuko da eta eta tutorea besteetat.
- Talde homogeenetan: Zailtasunak detektatzen direnean, helburu zehatzak lantzeko eta gela barruan landu ezin direla justifikatzen bada, talde homogeenak egingo dira, gela barruan edo gelatik kanpo.
- Txokoetan edo giroetan: ikasleek dinamikak, jarduerak eta materialak ezagutzen dituztenean (lehenago talde handian, talde txikietan edo banaka landu direlako) eta autonomoki erabiltzeko gai direnean.
- Tailer espezifikoak: tutoreak, laguntza irakasleak edota familiek gidatuta.
- Lan indibiduala: bakarka mahaian lan egiten dutenean

1.6. Koronabirusak hizkuntzan izan duen eragina

Koronairusa sortu zenetik, urte pare bat pasa dira jada. Txinan sortu eta mundu osora zabaldu zen, milaka eta milaka pertsona atzean utzi dituelarik, beren bizitza galdu zuten eta. Talde batzuk, birusa harrapatzeko edo behin harrapatuta ondorio latzagoak izateko posibilitatea handiagoa da. Talde bakoitzak sufritu ditzakeen ondorioez gain, arlo desberdinetan ere ondoro larriak ekarri ditu COVID-19ak.

Esan bezala, esparru eta sektore desberdinengan eragina izan du birusak. Hezkuntza-sektorean ere, nola ez, eragin handia izan du. Hezkuntzarekin batera, irakasleen eta ikasleen arteko harremanak ere aldatu dira. Mundu guztia konfinatuta egon zenean, haurrak ere etxean sartuta egon behar izan zuten. Inguruarekin kontaktua galdu zuten eta beraz, harremana, soilik etxekoekin izaten zuten (etxe berean bizi zirenekin). Psikologikoki eta beste arlo batzuetan ere, ondorioak izan bazituen ere, hizkuntzaren arloa, larria izan da.

Esan moduan, haurrak soilik beren familia kideekin hitz egiteko eta komunikatzeko aukera zuten gehienbat. Azken finean, kanpora ateratzen garenean, besteekin komunikatzean eta harremanatzean, estimulu asko jasotzen ditugu, baita hizkuntzarekin lotutako estimuluak ere. Hala ere, ondorio gehien pairatu dituzten haurrak, hizkuntza edo mintzamen nahaste edo arazo bat dutenak izan dira. Zergatik? Haur askok kanpoko laguntza izaten du komunikazioa hobetzeko asmoz: eskolan, entzumen eta mintzairako espezialistekin egiten diren saioetan, logopedaren saioetan... eta konfinamenduan esku-hartzea haiekin egiteko eskubidea kendu zitzaie, ezin baitzen etxetik atera. Eskertzekoa eta aipatzekoa da gainera, familiek lan izugarria egin behar izan dute, beraiek izan baitira komunikazioan hobekuntzak egon daitezkeen, jo eta ke lanean egon direnak.

Behin kalera ateratzeko aukera izanda, musukoaren erabileraren derrigortasuna dela eta, inguruko jendearen aurpegiak estalita egon dira. Horrek ahotsa ongi ez entzutea ekarri du, musukoarekin ez baita hain ongi hitz egiten, ahoskatzen eta gainontzekoek zer esaten duten entzuten. Hori gutxi balitz, entzumen urritasuna duten pertsonak adibidez, edo hizkuntza eta komunikazioa hobea izan dadin ezpainak irakurtzen dituzten pertsonak, aho estaliek topo egin dute eta ezin izan dute aurpegiko keinuak edo ezpainak irakurri.

Gauza bera gertatzen da, hizkuntza barneratzen ari direnekin: hizkuntza bat barneratzen dugunean, konturatu gabe, parekoaren edo guri zuzentzen zaigun pertsonaren aurpegia begiratzeaz gain, berak egiten duen hori kopiatzen dugu, eta egiten duen oro imitatzen saiatzen gara. Ongi ahoskatzeko, ezpainetan jartzen dugu arreta. Atarramentu

Piktogramak bigarren hizkuntza eskuratzeko estimulazaile gisa Haur Hezkuntzan

honetaz jabetu dira, batez ere, logopeda eta entzumeneko eta mintzairako irakasle
espezialistak. Hauen lana asko zaildu du, ahoa baita haien lanabes nagusia.

2. MARKO PRAKTIKOA

Marko praktikolari dagokionez, behin piktogramen eta Komunikatzeko Sistema Alternatiboei buruzko informazioa jaso ondoren, praktikara eramango da. Horretarako, marko praktikoa bi zatitan banatu da. Alde batetik, galdetegi bat sortu da inguruan dauden pertsonen Komunikatzeko Sistema Alternatiboekiko duten ikuspegia zein den aztertzeko asmoz. Modu honetan, gai honekiko dagoen informazioa zein den eta zein kalitatekoa den ikusteko aukera izango da.

Bestetik, eskolan KSA-en erabilera zein den aztertuko da. Hori horrela, Haur Hezkuntzako etapan dauden bi haurren kasuak aztertuko dira, piktogramen bidez euskara ikasten ari dira eta. Bestalde, haur hauentzat prestatutako material desberdina dago, hala nola piktoekin egindako ipuina, ordutegia eta giltzetakoa.

2.1. Galdetegia

2.1.1. Helburua

Arlo praktikoko lehenengo zati honetan galdetegi bat sortu da inguruko pertsonen Komunikatzeko Sistema Alternatiboekiko duten ikuspegia zein den ikusteko eta honi buruzko hausnarketa bat egitea da helburua.

2.1.2. Metodologia

Galdetegia egiteko *Google* plataforma erabili da. Plataforma hau oso egokia da horrelako galdetegiak aurrera eramateko. Modu honetan, galdetegia *Whats App* bidez edota posta elektronikoaren bidez inguruan zabaltzea posible da. 12 galdera izan dira, helburua lortzea ahalbidetzen dutenak. Hauetatik batzuk irekiak dira, beste batzuk berriz, itxiak edota aukera anitzekoak:

- 1) Zein da zure lan eremua?
- 2) Ezagutzen al dituzu Komunikatzeko Sistema Alternatiboak?
- 3) Erabiltzen al dituzu?
- 4) Zure inguruan presente nabarmentzen dituzu?
- 5) Zeintzuk dira ezagutzen dituzun KSA nagusiak? (Aukeratu)
 - a) Daktilologiak
 - b) Komunikazio bimodala
 - c) Irudiak
 - d) Piktogramak
- 6) Zure ustez, zeintzuk izan daitezke KSA-k erabiltzearen abantailak edo indarguneak?
- 7) Eta KSA-k erabiltzearen desabantailak edo ahulguneak?
- 8) Zein helbururekin erabiliko zenituzke KSA-k?

- a) Ahozko hizkuntza hobetzea
 - b) Komunikatzeko estrategiak garatzea
 - c) Gizarteratze prozesuan laguntzea
 - d) Bakardadea edota isolazioa ekiditea
 - e) Interakzio komunikatiboa hobetzea
 - f) Kurrikuluma betetzea
- 9) Zeintzuk izango lirateke zure irizpideak KSA-k aukeratzeko orduan?
- a) Praktikan jartzeko zailtasuna
 - b) Ikaslearen edo hauraren ezaugarriak
 - c) Zure formakuntza
 - d) Familiaren kolaborazioa
- 10) KSA-k erabiltzeko, hizkuntzarekin lotutako nahaste bat izatea beharrezkoa dela uste duzu?
- 11) Gure gizartean KSA-er buruzko informazio falta dagoela uste duzu?
- 12) Noizbait jaso al duzu formakuntzarik edo ikastarorik KSA-en inguruan?


2.1.3. Partaideak

Galdetegi bete duten partaideak guztira 38 izan dira. Erantzun duten gehienak hezkuntza eremuan egiten dute lan. Hala ere, industria eremuan, nekazaritza eta ostalaritza, arte arloan eta gizarte eremuan lan egiten dutenen erantzun batzuk ere badaude.

2.1.4. Emaitzak

Lortutako emaitzak beraz, 38 izan dira, partaide guztiek, galdera guztiak erantzun dituzte eta. Galdera itxiak (bai/ez erantzuna dutenak) zirkulu-grafikoetan agertzen dira islatuta, aukera anitzeko galderak barra-grafikoetan eta galdera irekiak eranskinen atalean aurkitu daitezke (ikus V. Eranskina), baina ideia nagusia zein den azalduko da.


- 1) Ezagutzen al dituzu Komunikatzeko Sistema Alternatiboak?



1. Grafikoa: Galdetegiaren lehen galderatik ateratako ehunekoak

Galdetegia erantzun zutenen %84.2-ak, Komunikatzeko Sistema Alternatiboak ezagutzen ditu edo gutxienez, hauen existetziak jabeturik daude. Gainontzekoek berriz, ez dituzte ezagutzen.


2) Erabiltzen al dituzu?



2. Grafikoa: Galdetegiaren bigarren galderatik ateratako ehunekoak

Hurrengo galdera honetan, ehunekoak aldatu egin dira. Erantzun duten pertsonen gehiengoak KSA-k ezagutzen dituzte baina ezagutzen duten batzuek ez dituzte erabiltzen haien egunerokoan.


3) Zure inguruan presente nabarmentzen dituzu?



3. Grafikoa: Galdetegiaren hirugarren galderatik ateratako ehunekoak

Oraingo honetan, nahiko parekatuta badaude ere, "ez" erantzuna da nagusi. Beraz, egunerokoan edota inguruan ez dituzte KSA-k sumatzen.

4) Zeintzuk dira ezagutzen dituzun KSA nagusiak?



4. Grafikoa: Galdetegiaren laugarren galderatik ateratako ehunekoak

Nahiz eta Komunikatzeko Sistema Alternatibo gehiago dauden ere, jarritako aukeretatik ezagutzen den gehiena, hau da, ezagunena, piktogramak dira. Hauen atzetik irudien erabilpena da hurrengoa. Hari horretatik jarraituta, komunikazio bimodala daukagu eta azkenik, daktilologiak ditugu. Pertsona batek Zeinu Hizkuntza ere aipatu du.


5) Zure ustez, zeintzuk izan daitezke KSA-k erabiltzearen abantailak edo indarguneak?

Abantaila edo indargunerik nagusia, KSA-k hainbat komunikazio-estrategia garatzeko aukera ematen dutela da eta zentzu guztiak erabiltzeko gai ez diren pertsonen komunikatzeko, pentsamenduak azaleratzeko, sentimenduak adierazteko, norberak dituen beharrak asetzeko, aniztasunari arreta emateko, hezkuntza inklusibo bat bultzatzeko... aukera ematen dute, isolatuta egon ez daitezela. Izan ere, pertsona guztiak desberdinak gara elkarren artean, bakarrak, eta bistan dago hizkuntza barneratua izatea (edo hobeto esanda, KSA-k ematen dizkigun eta aurretik aipatutako ideiak guztiez baliatzea) dugun eskubide bat dela.

6) Eta KSA-k erabiltzearen desabantailak edo ahulguneak?

Batzuen ustez, KSA-k erabiltzeak ez du desabantaila edo ahulgunerik. Beste batzuek ordea, kasu batzuetan hauek erabiltzea zaila izaten dela diote, soilik ezagutzen dituztenekin erabili ahal direlako edota martxan jartzerako orduan (hasieran batez ere) errefusatzeko familiek adibidez, ahozko adierazpena oztokatuko duen zerbait bezala ikusten dutelako (zorionez ez da beti hala suertatzen), eta horrenbestez, oso zaila izaten da kasu hauetan eskolan egindako lanak umearen beste testuinguruetara orokortzea. Eta ez hori bakarrik: ez badira modu egokian erabiltzen, KSA-k behar dituen pertsonarentzat onurak ekarri beharrean kontrako gertatu daitezke eta prozesuan zehar laguntza izan beharrean, oztopoa izatea.


7) Zein helbururekin erabiliko zenituzke KSA-k?



5. Grafikoa: Galdetegiaren zazpigarren galderatik ateratako ehunekoak

KSA-k helburu ezberdinekin erabili daitezke. Pertsonaren arabera, arrazoiak desberdinak dira, baina gehiengoaren ustetan helburu nagusia interakzio komunikatiboa hobetzea da. Komunikatzeko estrategiak garatzea doa hurrena, baita ahozko hizkuntza hobetzea ere. Hizkuntzaren garrantziaz gain, gizarteak eta honek duen eragina ere kontuan hartu behar denez, gizartratze prozesuan lagungarria izan daitekeela uste dute. Garrantzi gutxien duen helburua beraz, kurrikuluma betetzea da. Izan ere, KSA-k behar dituen pertsona horrentzat askoz garrantzitsuagoa da komunikatzeko gai izatea, estrategiak barneratzea edota gizartean integratua egotea eta ez kurrikulumean eta hau betetzean soilik zentratzea.

8) Zeintzuk liriateke zure irizpideak KSA-k aukeratzeko orduan?



6. Grafikoa: Galdetegiaren zortzigarren galderatik ateratako ehunekoak

KSA-k aukeratzeko orduan, helburuak argi izateaz gain, beharrezkoa da aukeratzeko irizpideak argi izatea, hauek ahalik eta eraginkorrenak izan daitezzen. Hori horrela, lortutako erantzun bozkatuena, ikaslearen edo hauraren ezaugarriak kontuan hartzea da. Izan ere, gakoa edota erdigunea haurra da eta haurarentzat aukerarik onena zein den, hura aukeratu beharko litzateke. Noski, hau ez da irizpide bakarra, KSA-k erabili behar dituen pertsonak duen formakuntza edota hauraren familiaren kolaborazioa ere kontuan hartzea

ezinbestekoa da. Gerta daiteke, haurarentzat sistema bat oso eraginkorra izatea, baina inguruan dituen profesionalak/familiak ezin erabili izatea.


9) KSA-k erabiltzeko, hizkuntzarekin lotutako nahaste bat izatea beharrezkoa dela uste duzu?

Bi pertsonak baietz erantzun dute, baina gainontzeko guztiak ezetz diote. Sentimenduak eta emozioak adierazteko eta azaleratzeko ere balio dute, edota beste herrialde batetik etorri diren haurrentzat (edota adibidez, ama hizkuntza gaztelera denean eta eskolan euskara ikasten ari direnentzat) ere tresna interesgarriak dira. Errekurtso aberasgarriak dira beraz, hizkuntza-nahasmendua izatea edo ez izatea ez da aitzakia hauek erabiltzeko.

10) Gure gizartean KSA-er buruzko informazio falta dagoela uste duzu?

%100-ak informazio falta dagoela uste du. Hasteko, irakasle/hezitzaile/espezialista... izateko jasotzen den formakuntza, hau da, unibertsitatean egindako graduetan ez da ia aipatzen hauen inguruko informaziorik. Gauzak horrela, KSA-ekin lotura zuzenagoa duten graduetan ia lantzen ez badira, probabilitatea handia da beste gradu edota arloetan ezta aipatu ere egitea. Gizartean hezkuntza-eremuko langile asko daude, baina honekin zerikusirik ez duten beste eremuetan lan egiten duten beste dezente ere badaude eta hauek ere informazio galera hori ere badute. Hori gutxi balitz, ez gara kontziente KSA-k zer diren, zertarako erabiltzen diren eta hauek duten garrantziaz.

11) Noizbait jaso al duzu formakuntzarik edo ikastarorik KSA-en inguruan?



7. Grafikoa: Galdetegiaren hamaikagarren galderatik ateratako ehunekoak

Galdetegia erantzun duen gehiengoak ez du formakuntzarik edo ikastarorik jaso Komunikatzeko Sistemen inguruan, %55.3-ak zehazki. %44.7-ak berriz, noizbait jaso du. Hala ere, deigarriena ez da datu hori. Nahiz eta geroz eta "normalizatuagoa" edo orokortuagoa dagoen, jendeak informazio gutxi duela sentitzen du eta %97.4-ak gehiago jakin nahiko luke gaiaren inguruan.

2.2. KSA-en erabilera eskolan

Arlo praktikoko bigarren zati honetan, praktikaldia aurrera eramaten ari den eskolan, behaketa bat egin da. Behaketa honetan, Komunikatzeko Sistema Alternatiboak eskoletan duten funtzioa aztertu da. Sistema desberdinak daudela jada badakigu, baina kasu honetan piktogramen inguruan arituko gara, hau baita aztertutako hurrekin erabiltzen den sistema nagusia.

2.2.1. Entzumen eta Mintzairako espezialistaren saioak

2.2.1.1. Helburua

Behaketaren helburua, Komunikatzeko Sistema Alternatiboak eskoletan duten funtzioa edota baliagarritasunaz aztertzea da. Izan ere, geroz eta ohikoagoak dira KSA-k edota hauen erabilpena, baina lehenengo pertsonan hauek nola maneiatzen diren ikustea beharrezkoa dela ikusten da, hauen baliagarritasunari buruz hausnartzeko.

2.2.1.2. Metodologia

Behaketa egiteko beraz, eskolako Entzumen eta Mintzairako irakaslearekin hainbat saio aurrera eramanez dira. Metodologia aktiboa izan da, haurrak abiapuntu gisa harturik, beraien izan dira saio guztietan ardatz.

Saioaren egiturari dagokionez, hasieran ahozko ahaztasuna lantzeko ariketak egiten dituzte, ondoren azalduko den bezala, beharrik bi haurrak hizkuntzarekin zailtasunak dituzte euskarari dagokionez, ez baita beren etxeko hizkuntza eta euskaraz aritzeko/entzuteko esparrua ikastetxea dute soilik. Hau zehaztea garrantzitsua da, arestian aipatu gisa, Komunikatzeko Sistema Alternatiboak erabiltzeak ez du zertan hizkuntzaren nahaste bat atzetik. Kasu honetan erabiliko den sistema alternatiboa piktogramak dira.

Saio hauetan, *Enséñame a hablar* izeneko jolas hezigarria erabiltzen da. Ahozko ahaztasuna landu ondoren, piktogramekin lanean hastea da hurrengo pausua. Horretarako, piktograma batzuk erakusten zaizkie haurrei. Oso garrantzitsua da, saioak aurrera eramateko, haurrentzako piktogramak ezagunak izatea, beraz, egun batetik bestera erabiltzen diren piktogramak berdinak dira. Jolas honek hiru fase ditu:


- Lehenengo fasea: Jolas moduan planteatzen zaie: irakasleak piktogramak erakusten dizkie, banaka-banaka, eta haurrak, ahalik eta azkarren piktogramak zein den asmatu behar dute. Modu honetan, haurrak motibatuak egoten dira eta hiztegia barneratzen dute. Haurra gutxinaka piktogramekin familiarizatzen hasten da eta piktogramak bakoitzari esanahia jartzen dio. Piktogram hauetan, esaldietako elementuak barneratzen joaten dira,

hau da, pikto batzuk aditzak dira, beste batzuk izenak (edo subjektuak), izenondoak... Adibidez, honako piktoetan “Aita”, “margolana” eta “margotu” hitzak ditugu.




4. Irudia: “*Enséñame a hablar*” jolaseko hiztegia ikasteko piktoak

- Bigarren fasea: Ondoren, hiztegia birgogoratu eta errepasatu dutenean, esaldi laburrak egiten dituzte. Hitzetatik hasi eta esaldietara igarotzen dira. Piktogramei esker, esaldien ordena egokia zein den ikasten dute. Horretarako, lamina simple bat dute aurrean eta beraiek, piktoak ordenatzean izan duten laguntzarekin, esaldia osatzen dute. Adibidez, «aitak margolana margotu».



5. Irudia: “*Enséñame a hablar*” jolaseko lamina sinpleak

- Hirugarren fasea: Azkenik, jolasaren amaiera, lamina handi bat da. Lamina konplexu horretan, aurretik ikusitako piktoak ageri dira, baina egoera orokor batean. Hori horrela, lamina deskribatzen joaten dira, esaldi laburrak eginez. Pikto asko familiarekin lotuta daudenez, lamina konplexuan famliako kideak agertzen dira, familia-kide bakoitza zeregin desberdin bat egiten dagoelarik. Adibidez: «aita kotxea garbitzen dago», «aitona bazkaria prestatzen dago», «txakurra jolasten ari da»...



6. Irudia: “Enséñame a hablar” jolaseko lamina konplexuak

2.2.1.3. Partaideak

Saio hauetako partaideak hiru izan dira. Alde batetik, eskolako Entzumen eta Mintzairako irakaslea eta bestetik, Haur Hezkuntzako bigarren mailan dauden (4 urtekoak) bi haur, Aitor eta Jon bezala deituko ditugunak (konfidentzialtasuna dela eta, izen hauek ez dira benetakoak).

- Aitor

4 urteko haurra da, Lekunberriko Ibarberri ikastetxean eskolarizaturik dagoena. Ez du hizkuntza atzerapenik, baina bere ama-hizkuntza ez da euskara, gaztelera baizik. Horregatik, gaztelania ongi menperatzen du, ez du arazorik, baina euskararekin laguntza behar duenez, Entzumen eta Mintzairako espezialistarekin astero saio bat egiten du hizkuntza barneratzeko, hala nola, hiztegia. Bere etxean bizi da, Lekunberri bertan, ama eta aitarekin, biak erdaldunak direlarik.

Euskera ulertzeko ez du arazorik, ahozko-hizkuntzaren ulermen maila ona du. Arrazoamendua ere ez da makala, eta eguneroko errutinak ongi menperatzen ditu. Komunikazioari dagokionez, ez du arazorik. Euskaraz aritzea kostatu egiten zaio, hizkuntza ez duelako menperatzen. Hala ere, orokorrean, nahiz eta batzuetan gaztelera hasten den, irakasleei euskaraz zuzentzen zaie. Bere lagunaren artean berriz, gehiago kostatu egiten zaio (lehen hitza batez ere) euskaraz egitea. Lana egiterako orduan, orokorrean, prest egoten da. Zerbait egiteko proposatzen zaionean, fonologia lantzeko jolas edo fitxa esate baterako, gustora egiten ditu. Gainera, hizkiak eta zenbakiak kontrolpean ditu.

Arlo afektibo eta soziala aztertzen badugu, arazorik ez duela ondorioztatuko dugu. Bere lagunekin ederki moldatzen da, batzuekin besteekin baina hobe, noski (ohikoa den bezala). Gai desberdinekiko interesa erakusten du, erraldoiak adibidez, izugarri gustatzen zaizkio.

- Jon

Bigarren haur hau ere, 4 urteko haurra da, Lekunberriko Ibarberri ikastetxean eskolarizatur dagoena. Bi haurrak, gela berean daude. Hizkuntza atzerapen txikia dauka, baina ez da bat ere kezkarria. Aurreko ikasturtean hasi zen eskolan lehenengoz, eta orduan soinua erabiltzen zituen komunikatzeko, ez zuen apenas hitzik erabiltzen. Gaur egun, ongi komunikatzen da eta erdaraz bada ere, esaldiosoak egiteko gai da. Bere hizkuntza nagusia gaztelera da eta gelakideekin ere gaztelera mintzatzen da. Hala ere, hizkuntza-mailari dagokonez, heldutasun eskasia dauka.

Lekunberrin bizi da, bere ama, aita eta arreba txikiarekin batera. Denboraldi batzuetan, amona ere haiekin bizi da. Etxean, hizkuntza desberdinak entzuten ditu, aita arabiarrez hitz egiten baitu (gaztelera ere badauki, baina ez du ehuneko ehunean ongi kontrolatzen) eta haurrari ere arabiarrez mintzo zaio. Amak berriz, gaztelera egiten du. Beraz, etxean arabiera eta gaztelera hizkuntzak entzuten ditu eta eskolan, euskara eta ingelesa.

Euskara ulertzeko zailtasunak izaten ditu batzuetan. Talde handian dagoenean, hau da, gelako asanblean adibidez, ez du arreta jartzen eta bere munduan egon ohi da. Euskara ongi ulertzen ez duelako izan daiteke, eta ongi ulertzen ez duenez deskonektatu egiten du bere interesekin lotuta ez dagoelako. Geroz eta gehiago saiatzen da euskaraz egiten, hitz solteak badira ere: ura, mina, bai, ez... Hori bai, espezialistarekin joaten denean, hitz asko ikasi dituela baieztatu daiteke. Hobekuntza nabarmena egin du saio horietara joaten hasi zenetik eta bere hiztegia aberasten ari da poliki-poliki.

Lana egiterako orduan, orokorrean, prest egoten da. Zerbait egiteko proposatzen zaionean, fonologia lantzeko jolas edo fitxa esate baterako, gogotsu hasten da, baina azkar nekatzen da, interes-galera dagoelako. Gelako beste haurrekin alderatuta, oso umea da oraindik, bere adinerako beharko lukeen heldutasun maila ez dauka eta askotan nekatu edo aspertu egiten da. Hori bai, nahiz eta nekatuta egon bukatu arte jarraitzen du. Azkar despistatzen denez, bere ondoan lan egitea da komenigarria.

2.2.2. Piktogramak egunerokoan

Entzumen eta Mintzairako espezialistarekin aurrera eramaten diren saioetaz gain, egunerokoan ere, piktoen erabilera beharrezkoa da. Kasu honetan ikusi dugun bezala, ez da beharrezkoa hizkuntza-nahasmedu bat izatea piktoak erabiltzeko. Bigarren hizkuntza bat ikasteko orduan ere erabilgarriak dira, oso bisualak baitira eta testuingurua ulertzeko tresna garrantzitsua eta klabea izan daiteke.

Espezialistaren saioetan egiten den lanaz gain, jarduera desberdinak eramaten dira aurrera eguneroko errutinetan. Haur Hezkuntzako errutinetan, ipuinak kontatzea ohikoa da. Egun hauetan zehar, adibidez, *Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo*a ipuina landu da. Horretaz gain, ipuinaren grabaketa bat egin da, antzerki baten modukoa (haur bakoitzak pertsonaia baten ahotsa egin du eta gero, bideo moduan dagoen ipuin bertsioari grabaketak jarri dizkiogu). Ipuinaren bertsio orokorra kontatzeaz gain, piktoak erabiltzen dituzten hurrekin istorioa ongi ulertu dutela ziurtatzeko, piktoekin egindako ipuinaren moldaketa bat kontatu zaie, modu zuzenagoan. Piktoekin egindako ipuinaren bertsioa internetetik hartu da, eta amaitu gabe zegoenez, amaiera eman zaio (ikus VI. Eranskina).

Hala ere, piktoak haurren bizitzetan presenteago egotea oso aberasgarria izan daiteke (bai hizkuntzaren arlotik laguntza gehigarri baten moduan, bai beste haurrentzat ere, oso bisuala denez, dena hobeto ulertzen baitute). Horregatik, gelako ordutegia egin da. Gelan, ordutegi bat dago (asteko ordutegia) eta eguneko gertaera garrantzitsuak bertan ageri dira. Beraz, oraingo ordutegi berria, eguneko ordu guztietan (ordu bakoitzean zehaztuta) zer egin azaltzen den ordutegi bat da. Haurra kokatzeko tresna bisuala da, irudien laguntzarekin, momentu bakoitzean zer datorren aurreikusteko gai izan dadin (ikus VII. Eranskina).

Komenigarria da ere, piktogramekin egindako giltzetako bat soinean eramatea. Modu honetan, haurrak, edozein momentutan zerbait esan nahi badu, baina euskarazko hitzaz gogoratzen ez bada, piktogramen giltzetakoa erabiliz, esan nahi duen hori adierazteko gai izan daiteke. Horrela, piktoa ikusita, gerta daiteke, euskaraz nola esaten den gogoratzea eta gogoratzen ez bada, irakasleak zein pikto adierazi nahi duen ikus dezake eta berak euskaraz esan nahi duen hori esaten lagundu (ikus VIII. Eranskina).

2.2.3. Marko praktikoaren emaitzak

Ikus daitekeen bezala, piktoak edota piktogramak, oso lagungarriak dira hizkuntzari dagokionez. Hizkuntza atzerapena izan edo ez izan, oso bisualak direnez, haurra bere testuinguruan kokatzea errazagoa izatea ahalbidetzen du.

Galdetegia aztertuz atera daitekeen ondorio argiena, inguruko jendeak (galdetegia erantzun dutenak behintzat) Komunikatzeko Sistema Alternatiboei buruzko informazio falta sumatzen duela da. Gehiengoak KSA-k zer diren badaki, baina hortik aurrera, askoz gehiago ezin dute sakondu gaiaren inguruan. Hau da, erantzun duten gehiengoak KSA-k ezagutzen ditu, baina gutxi sentitzen dira ziur eta gai hauek erabiltzeko orduan. Hori gutxi balitz ere, pertsona aunitzek interesa izango lukete gehiago ikasteko.

Izan ere, oso lagungarriak izan daitezke, kasu batzuetan gakoa direlarik, baina hauek modu egoki batean erabiltzea ezinbestekoa da. Bestela, lagungarria izan beharrean, oztopo bihurtu daitezke. Hori horrela gertatuz gero, haurra izango litzateke "galtzaile" eta hori da ekidin nahi duguna, guk haurraren laguntzaile izan nahi dugulako eta ez bere bidean agertu den traba bat.

Beste aldetik, arestian esan bezala, piktoak pizgarri itzelak dira hizkuntza barneratzeko orduan. Manipulagarriak eta ikusgarriak direnez, haurrentzat tresna baliagarriak dira, modu kontzienteagoan lan egiten dute eta. Aztertutako kasuetan, hizkuntza hobekuntzarekin lotutako babesa ematea izan da piktoen zeregina. Horretarako, eskolako Entzumen eta Mintzairako espezialistarekin astero egiten den saioaz gain, hauen errutina eta egunerokoan txertatzea ere ezinbestekoa da, piktoek ematen duten bultzada hori eraginkorrak izan dadin.

ONDORIOAK

Gradu Amaierako Lan honetan edota honi esker, hainbat ondorio atera dira. Izan ere, askotan ez gara gauzetaz kontziente, benetan interesatzen eta informazioa biltzen ez badugu. Are gutxiago, informazio hori, egoera errealean edo praktikan jartzen ez badugu.

Empatia zer den jakitea oso garrantzitsua da bizitza honetan eta gizarte honetan ere, noski. Lan honen hasieran, hori goraiatu nahi izan da. Kasu desberdinak ikusiz, argi dago oso gogorra dela komunikaziorik gabe bizitzea. Nork bere burua egoera horretan imaginatuz, konturatuko da, latza dela oso besteekin komunikatzeko gai ez izatea. Askotan, orain ere, pertsona bati zerbait azaltzen diozunean eta beste horrek esan duzun hori ulertzen ez duenean, haserrea eta frustrazioa dira sentitzen diren emoziorik nagusienak, mezua ez baita modu egokian eman.

Hori baitan hartzen bada, konturatuko gara sentsazio hori egunero, orduro, minuturo, segunduro... sentitzen dute pertsonak ere badaudela. Gainera, komunikatzeko gaitasun hori ez duten pertsonak gure bizitzetan eta komunikazio saioetan gure komunikatzeko modura edo egokitzea gura dugu. Egoerak barregarria dirudi, kontraesankorra. Hoberena izango litzateke gainontzekoak egoera horietara egokitzea, errazagoa baita, baliabide gehiago baidade eskuratuta. Honekin esan nahi dena, komunikatzeko arazoak dituzten pertsonen lagundu behar zaiela da, haiek ulertzen saiatu (beraien egoeran jartzen saiatu) eta haientzat oztopo bat izatea ekidin.

Baina, nola lagundu pertsona horiei? Egindako galdetegiarekin ondorioztatu dena, inguruko pertsonen (galdetegia erantzun duten pertsona gehienak hezkuntza-eremuan aritzen dira) ez dakitela komunikatzeko gai ez den pertsona bat nola sorotsi edo faboratu. Komunikatzeko erabiltzen ditugun ohiko sistemak maneiatzeko kapazak ez direnek, aipatu ditugun Komunikatzeko Sistema Alternatiboen beharra izan ohi dute besteak beste.

Gainontzekook beraz, sistema hauen inguruan informazio gehiago izan beharko genuke eskuratua. Modu honetan, elkarren arteko komunikazioa askoz ere emagarriagoa izango litzateke. Hauekiko dugun informazioa geroz eta aberatsagoa baldin bada, irakaslearen paperean jarrita, askoz hobeto lagunduko dugu ikaslea/haurra. Arazoa, informazio hori nondik eskuratu da. Irakasle izateko formakuntzan, ez dira ia sistema alternatiboak aipatzen ere. Hori ez da oso positiboa, sistema alternatibo horiek edozein haurrek behar izatea gerta daiteke eta. Tutoreek ere, behar izan ohi dute. Hau da, tresna hauek erabiltzeko ez da beharrezkoa Entzumen eta Mintzairako irakaslea izatea edota Pedagogia Terapeuta irakaslea izatea, eta orokorrean, irakasle hauek jasotzen duten

formakuntzan zehar gaiarekin lotutako informazio gehiago jasotzen dute, tutore izateko irakasleek jasotzen duten formakuntzan baino.

Adibide argiak dira beraz, aztertutako kasuak. Komunikatzeko arazorik edota hizkuntza arazorik ez duten arren, Komunikatzeko Sistema Alternatiboen erabilera egiten dute, piktogramen erabilera alegia, bigarren hizkuntza bat barneratzeko asmoz. Irakasleak piktogramak ezagutuko eta maneiatuko ez balitu, ezingo litzuke haurrak modu horretan lagundu eta ikaskutza prozesua askoz ere frustagarriagoa izango litzateke bai irakasleentzat nola sorotsi ez dakielako, bai ikasleentzat ere, berak esfortzu handia egiteaz gain, ez dituelako emaitzak ikusiko.

Beraz, lan honen helburua bete dela ondorioztatu daiteke. Izenburuak dioen bezala, helburua piktogramen erabileraren bidez bigarren hizkuntza ikastea da. Haurrak, piktogramen erabilerari esker, bigarren hizkuntza ikasten dute. Batetik, Entzumen eta Mintzairako irakaslearekin egiten diren saioak produktiboak dira oso. Bere laguntzari esker, haurrak arreta pertsonalizatuagoa izaten dute eta bigarren hizkuntza ikasteko prozesuan aurrera egiten dute. Horretaz gain, saio horietatik at ere lanean jarraitu behar denez, prestatutako materialak (ipuina, ordutegia eta giltzetakoa) laguntza gehigarri bat dute, eta hauen erabilerarekin beren burua ere ordenatuz, hizkuntza barneratzen dute.

Azken finean, bigarren hizkuntza bat ikastea ez da lehenengoa barneratzea bezala. Hau da, haur hauek jada hizkuntza bat barneratuta dute eta euskara ikasten ari dira. Hala ere, piktoei esker, bi hizkuntzen arteko loturak egitea errazagoa da, hasieran piktoa ikusten baitute, gero beren ama hizkuntzan esan eta azkenik, itzulpena eginez, euskaraz esaten baitute.

CONCLUSIONES

En la elaboración de este Trabajo de Fin de Grado se han sacado varias conclusiones, ya que muchas veces no somos conscientes de las cosas si no nos interesamos de verdad y si no ponemos en práctica esa información en situaciones reales.

Al comienzo de este trabajo, se ha querido ensalzar la importancia de la empatía en esta vida y en esta sociedad. Está claro que es muy duro vivir sin comunicación, no ser capaz de comunicarse con los demás. Muchas veces, en momentos que explicamos algo y la otra persona no entiende lo que quieres decir, la indignación y la frustración son las principales emociones que se sienten, ya que el mensaje no se ha transmitido correctamente.

Además, queremos que las personas que no tienen esa capacidad de comunicación se adapten a nuestra forma de comunicarnos en nuestras vidas, pero todo lo contrario: lo ideal sería que los demás se adaptaran a estas situaciones, ya que es más fácil, debido a los recursos adquiridos previamente son más. Hay que ayudar a las personas con problemas de comunicación, tratar de comprenderlas (intentar ponerse en su situación) y evitar que sean un obstáculo para ellas.

Pero, ¿cómo ayudar a estas personas? El cuestionario realizado concluye que las personas de su entorno (la mayoría de las personas que han respondido al cuestionario trabajan en el ámbito educativo) no saben cómo socorrer o favorecer a una persona que no es capaz de comunicarse. Aquellas que no son capaces de manejar los sistemas convencionales que utilizamos para comunicarnos, suelen requerir, entre otras cosas, los Sistemas Alternativos de Comunicación.

Otra de las conclusiones es que deberíamos tener más información sobre estos sistemas. De este modo, si la información que tenemos sobre ellos es cada vez más abundante, ayudaremos mucho mejor al alumno/niño. El problema es de dónde obtener esa información. En la formación como profesores, apenas se mencionan los sistemas alternativos. Eso no es muy positivo, porque puede ocurrir que estos sistemas alternativos los necesite cualquier niño y eso conlleva a que los tutores también suelen necesitarlo. Es decir, para utilizar estas herramientas no es necesario ser profesor de Audición y Lenguaje o profesor de Pedagogía Terapéutica y, en general, a lo largo de la formación que reciben estos profesores reciben más información relacionada con el tema, que en la formación que reciben los profesores tutores.

En los casos de los niños analizados, aunque no tengan problemas de comunicación ni de lenguaje, hacen uso de los Sistemas Alternativos de Comunicación, es decir, de los pictogramas, con el fin de introducir una segunda lengua. Si el profesor no conociera y manejara los pictogramas, no podría ayudar a los niños de esta manera y el proceso de aprendizaje sería mucho más frustrante tanto para el profesorado que no sabe cómo socorrer como para el alumnado, que además de hacer un gran esfuerzo, no verá los resultados.

Por tanto, se puede concluir que se ha cumplido el objetivo de este trabajo. Como dice el título, el objetivo es aprender la segunda lengua a través del uso de los pictogramas. Los niños, gracias al uso de pictogramas, aprenden un segundo idioma. Por un lado, las sesiones con el profesor de Audición y Lenguaje son muy productivas. Gracias a su ayuda,

los niños tienen una atención más personalizada y avanzan en el proceso de aprendizaje de la segunda lengua. Además, dado que hay que seguir trabajando al margen de estas sesiones, los materiales preparados (el cuento, el horario y el llavero) cuentan con una ayuda adicional, y ordenándose también con el uso de los mismos, interiorizan el idioma.

Al fin y al cabo, aprender una segunda lengua no es como asimilar la primera. Es decir, estos niños ya tienen interiorizado un idioma y están aprendiendo euskera. Sin embargo, gracias a los pictos es más fácil establecer vínculos entre ambas lenguas, ya que al principio ven el picto, luego lo dicen en su lengua materna y por último, lo traducen y lo dicen en euskera.

ERREFERENTZIAK

(2016). *Tipos y clasificación de SAAC*. Signbarreras. Hemendik eskuratua: <https://signbarreras.wordpress.com/2016/05/06/recursostipos-y-clasificacion-de-saac/>

Asensio, M. I. (2018). Enseñar español como Segunda Lengua a alumnos de Educación Infantil: Retos y orientaciones metodológicas. *Doblele*, v. 4, p. 109-119.

Basil, C. *¿Qué son los Sistemas Aumentativos y Alternativos de Comunicación (SAAC)?*. ARASAAC. Hemendik eskuratua: <https://arasaac.org/aac/es>

Bengoetxea, I. (2022). *Ibarberri eskolako prebentzio plana*. Google Drivetik partekatuta.

Cress, C. J. & Marvin, C. A. (2003). *Common questions about AAC services in early intervention*. AAC Augmentative and Alternative Communication, v. 19, (n. 3), p. 254-272.

Dolz, J. & Idiazabal, I. (2013). *Enseñar (lenguas) en contextos multilingües*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Enséñame a hablar jolaseko materiala [Irudia]. Amazon. Hemendik eskuratua: <https://www.amazon.es/Ens%C3%A9%C3%B1ame-hablar-Gloria-L%C3%B3pez-Garz%C3%B3n/dp/8499154409?th=1>

Georgia, L. *Shang Dinastiako hezurra* [irudia]. Pixartprinting. Hemendik eskuratua: <https://www.pixartprinting.es/blog/pictogramas-historia/>

Gonzalez Miranda, E. & Quindós, T. (2014). *Diseño de iconos y pictogramas*. Campgrafic Editors. p. 10-17.

Laborit, E. (1995). *El grito de la gaviota*. Seix barral. Córcega - Bartzelona.

Minzoni, M. (2000). *Pictogramas: historia y evolución de los símbolos «universales»*. Pixartprinting. Hemendik eskuratua: <https://www.pixartprinting.es/blog/pictogramas-historia/>

Montero González, P. (2003). *Sistemas Alternativos y Aumentativos de Comunicación (SAAC) y accesibilidad: bases teóricas*. Puertas a la lectura, (n. 4), p. 129-136 Hemendik eskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/6023011.pdf>

Piktogramak bigarren hizkuntza eskuratzeko estimulatzailerik gisa Haur Hezkuntzan

Pereira, M. (2017). *Los sistemas aumentativos de comunicación (SAAC)*. Isep. Hemen eskuratu: www.isep.es/actualidad/los-sistemas-aumentativos-de-comunicacion-saac/

Roa Zubia, G. (2006). *Ideogramak eta piktogramak*. Zientzia.es. Hemen eskuratu: <https://zientzia.eus/artikuluak/ideogramak-eta-piktogramak/>

Romskil, M. A. & Sevcik, R. A. (2005). Augmentative Communication and Early Intervention: Myths and Realities. *Infants & Young Children*, v. 18, (n. 3), p. 174-185.

Ruiz Bikandi, U. (2000). *Didáctica de la segunda lengua en educación infantil*. Síntesis.

Rosetta harriaren goiko zatiak duen detailea [Irudia]. Pixartprinting. Hemen eskuratu: <https://www.pixartprinting.es/blog/pictogramas-historia/>

Sacks, O. (1991). *Veo una voz*. Anaya & Mario Muchnik. Madril.

Saleem Khasawneh, M. A. (2021). The relationship between the acquisition of language patterns and oral expression skills among students with learning difficulties in the English language during the Covid-19 pandemic. *Fondatia*, v. 2, (n. 5), p. 140-152. Hemen eskuratu: <https://doi.org/10.36088/fondatia.v5i2.1130>

Sapage, S.; Cruz-Santos, A. & Fernandes, H. (2018). A comunicação aumentativa e alternativa em crianças com perturbações graves da comunicação: cinco mitos. *Revista Diálogos e Perspectivas em Educação Especial*, v.5 (n.2), p. 229-240. Hemen eskuratu: <http://repositorium.sdum.uminho.pt/bitstream/1822/61911/1/8329-Texto%20do%20artigo-28492-1-10-20190402.pdf>

Terence, M. W. & Diller, K. C. (1979). Neurolinguistic considerations on the optimum age for second language learning. *The Annual Proceedings of the Berkeley Linguistics Society*. p. 510-524. Hemen eskuratu: <https://doi.org/10.3765/bls.v5i0.2157>

Vygotsky, L. (1934). *Pensamiento y lenguaje: teoría del desarrollo cultural de las funciones psíquicas*. Buenos Aires: Fausto.

Ziganda, I. Buruko hura nonr egin zion jakin nahi zuen satortxo. Liveworksheet. Hemen eskuratu: <https://es.liveworksheets.com/cy258040rb>. Moldaketa: Barberena, I. (2022). <https://drive.google.com/file/d/1nZSHkKEN9s3tnwd83skH4mPccuGx-jlr/view?usp=sharing>


Zubiri, J. J. (2003). Hizkuntzaren ikaskuntzaren inguruko teoriak eta didaktika. *Huarte de San Juan*, n. 6, p. 47-65.

ERANSKINAK

- I. Eranskina: Alfabeto *dakilologiko espainiarra*, Madrilgo Komunitateko pertsona gorren Federazioa, 2010, didactalia (<https://didactalia.net/comunidad/materialeducativo/recurso/alfabeto-dactilologico-espaol-de-la-federacion-de/49d91390-cd76-4ce1-b63d-df6b1262b0ab>).



- II. Eranskina: *Piktogramekin egindako material desberdinak*, ARASAAC (<https://arasaac.org/materials/es/3682>).



III. Eranskina: *Bliss sistema*, 2001, Espacio logopédico (<https://www.espaciologopedico.com/revista/articulo/138/sistema-de-simbolos-bliss.html>).

| | | | | | |
|-----------------------------|----------|--------|---------|----------|----------|
| Personas (amarillo) | yo | chica | padre | hombre | animales |
| Acciones (verde) | ver | leer | pensar | agrandar | competir |
| Sentimientos (azul) | aburrido | triste | enojado | feliz | v. claro |
| Cosas (naranja) | plato | pie | lago | comedor | pez |
| Ideas (blanco) | abajo | oculto | color | noche | en/sobre |
| Relaciones (rosa/morado) | qué cosa | quién | no | parte de | dónde |

IV. Eranskina: *Braille alfabetoa*, ONCE-ren eskutik (<https://www.once.es/servicios-sociales/braille>).

| Alfabeto braille | | | | | | | | | |
|------------------|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| a | b | c | d | e | f | g | h | i | j |
| ⠁ | ⠃ | ⠉ | ⠑ | ⠗ | ⠋ | ⠗ | ⠒ | ⠒ | ⠒ |
| k | l | m | n | o | p | q | r | s | t |
| ⠋ | ⠋ | ⠋ | ⠋ | ⠋ | ⠋ | ⠋ | ⠋ | ⠋ | ⠋ |
| u | v | x | y | z | ñ | | | | w |
| ⠋ | ⠋ | ⠋ | ⠋ | ⠋ | ⠋ | | | | ⠋ |

V. Eranskina: Galdetegian lortutako erantzun irekiak

- Zure ustez, zein(tzuk) izan daite(z)ke Komunikazio Sistema Alternatiboak erabiltzearen abantailak edo indarguneak?
 - Pertsona guztioi komunikatzeko aukera eskaintzen dutela adibidez.
 - Gizartea ez baztertzea.
 - Komunikatzeko eta gure ideiak adierazteko modu anitzak daudela erakustea. Guztiok ezberdinak gara eta baliteke hizkuntza ez izatea

- guztionez modurik eraginkorrena, (esate baterako, sentimenduak adierazteko edota gelako arauak ezagutzeko).
- Era tradizionaletan komunikatzeko zailtasunak dituztenei komunikazio bideak eskaintzea. Inklusioa lantzea.
 - Zailtasunak dituzten haurrei laguntzeko.
 - Komunikazio sistema alternatibo izenarekin ezagutzen ez banituen ere, adibideak ikusi ditudanean egunerokotasunean erabiltzen ditugun horiek direla ohartu naiz. Indargune asko ikusten dizkiot, bate ere ikas-zailtasunak izan ditzaketen ikasleekin komunikazio bisuala garatzen laguntzen dutelako.
 - Hizkuntza lortzeko transizio garrantzitsuak dira.
 - Motibagarriak izan daitezke.
 - Informazioa iturri gehiagotik heltzen dela.
 - Komunikatu ahal izateak batez ere.
 - Egoeraren arabera, adibidez haurarekin komunikatzeko laguntza gisa, ezagutzak barneratzen laguntzeko tresna gisa, desgaitasun zehatz batzuk dituzten haurrak laguntzeko...
 - Facilitan y favorecen el acceso a la comunicacion de las personas con dificultades.
 - Hezkuntza inklusibo baterantz gidatzen duela Hezkuntza sistema.
 - Zailtasunak dituzten pertsonen komunikazioa erraztea.
 - Hizkuntzaren ulermenean laguntzen dute.
 - Edozein pertsonak bere inguruko errealitatea ulertzeko eta komunikatzeko eskaitzen dituen abantailak.
 - Komunikazioa eta soziabilizazioa hobetzea, eta zenbait kasuetan ulermen mailan asko laguntzen ere.
 - Hizkuntza zailtasunak dituzten haurrentzat erraztasuna ematea.
 - Egokitzapena, inklusioa.
 - Pertsona guztiak parekatuko ginateke komunikazio arloan.
 - Aniztasunari erantzutea.
 - Zalantzarik gabe, komunikazioa bermatzen duten baliabide interesgarriak dira. Aniztasuna kontutan hartzen duten sistema alternatiboak, hots, aukera bat eta bakarra eta aho hizkuntzatik haratago badaudela bestelako komunikazio kanalak erakusarazten digutenak.
 - Ikasleenganako harremana eta komunikazio sakontzea, komunikatzeko errestasunak, zailtasunak dituen ikasle baten

zalantzei, galdereei, nahiei, beharrei ulertzeko laguntzaile gisa erabiltzea.

- Haur Hezkuntzan bereziki, haurrak errazago ulertu eta barneratu dezaten erabiltzen dira.
 - Permitir la comunicación a quien no puede hacerlo de otro modo.
 - Besteekin harremantzeko eta beraien nahiak, sentimenduak, pentsamenduak... adierazteko aukera ematen die ahozko hizkuntza ez dutenei edo ahozko adierazpenean zailtasunak dituztenei, baita beraien ingurua ulertzeko aukera eskaini ere. Horrez gain ahozko adierazpena eta komunikatzeko intentzioa sustatzeko aukera ematen du ere.
 - Arazoak dituztenentzat ikasketa prozesua erraztea.
 - Edozein komunikatu daitekelako.
 - No es una ventaja, es una necesidad de comunicación.
 - Erakargarriak dira, aniztasunaren arreta egiten dute, ikasleen interesekoak izan daitezke.
 - Komunikatzeko bidean errazten duela.
 - Zailtasunak dituzten umeei beste baliabide desberdinak erakustea ikasketa prozesua errazteko.
 - Posibilitan el desarrollo de diversas estrategias de comunicación y posibilitan la socialización de personas que no son totalmente capaces de utilizar todos los sentidos a la hora de comunicarse, y así no se encuentren aislados de la sociedad.
 - Komunikatzeko bidea da.
 - Pertsona guztien komunikatzeko modu ezberdinak errespetatzen direla.
 - Hitz egiterako orduan expresatzen laguntzen dute, edo seinale edo karteletan hauek hobeto ulertzen.
 - Pertsona guztiei aukera berdina ematea.
 - Que todo el mundo pueda comunicarse con quien quiera.
- Eta Komunikazio Sistema Alternatiboak erabiltzearen desabantailak edo ahulguneak?
 - Ez dut desabantailarik ikusten, beharrezkoak dira, baina egia da lan gehiago eskatzen dutela.
 - Ez du kalterik egiten, beraz ez duela esango nuke.

- Lan handia da, prestaketa, martxan jartzea, behar duen arreta eta espazioa eskaintzea. Batzuetan lan karga oso altua da eta horrelako proposamen edo alternatibak ez dira gure lehentasuna.
- Formazioa behar da batzuetarako (daktitologia).
- Atentzio indibidualizatua beharrezkoa izatea batzuetan eta ezin lortzea.
- Denbora falta prestaketarako eta kasu batzuetan esanahia plasmatzeko zailtasunak.
- Beharrezkoak badira ez ditut ikusten.
- Eskuragarritasun murrizagoa izan dezakete.
- Denok ez ditugula ezagutzen.
- Ingurukoen ezagutza falta.
- Zailtasunak hezitzaile edo irakasleen artean hauek erabiltzeko, ez-jakintasuna dela-eta. Honen inguruko informazio eta formazio falta.
- No encuentro.
- Ez nuke desabantailarik duenik esanen.
- Ez dakit, ez ditut erabili. Piktoak ikusi Bai, baina ez zait suertatu erabiltzea.
- Ez diot desabantailak ikusten.
- Oraindik, zoritxarrez, ez daudela beharko litzatekeena bezain zabalduak gizartean.
- Ez jakitea nola erabili etekina ateratzeko Edo ez ezagutzea material hori.
- Ez daude.
- Ez dut desabantailarik ikusten.
- Denok hauen inguruko ezagutza edo formakuntza izan beharko genuke.
- Gaitasunen garapen osoa ez ziurtatzea.
- Ez nuke aipatuko desabantailarik dutenik.
- Ez dut uste komunikazio sistema alternatiboak desabantailak edo ahalguneak dituztenik.
- Denbora gehiago behar dela lantzeko eta prestatzeko.
- No creo que haya desventajas.
- Sistema batzuk ez ditut aproposak ikusten ez dutelako aukera ematen komunikazio sistema erabiltzen duen pertsona hori edonorekin harremantzeko, baizik eta sistema hori ezagutzen duten pertsonekin bakarrik. Horrez gain, kasu batzuetan zaila izaten da familiek sistema

hauen erabilera martxan jartzea, ahozko adierazpena oztopatuko duen zerbait bezala ikusten dutelako, eta horrenbestez, oso zaila izaten da kasu hauetan eskolan egindako lanketak umearen beste kontestuetara orokortzea.

- Informazio falta.
 - Mundu guztiak ez dituela ezagutzen edo ez dago horren irakaskuntza.
 - Ninguna.
 - Ezagutza eza edo nola erabili ez jakitea.
 - Denok ez ditugula ezagutzen.
 - Zailtasunak lengoia inklusiboa izatea.
 - Son recursos que requieren una gran implicación y pueden llegar a desarrollarse de una manera lenta.
 - Abantailak dira.
 - Ez badira modu egokian erabiltzen, KSA bat behar duen pertsonarentzat onurak ekarri beharrez kontrakoa gerta daitezke.
 - Pertsona itxuentzat ez dira lagungarriak. Egoki aplikatzeko formazioa behar da.
 - Persona batzuk beste batzuek baino abantailak dituztela.
 - Muchas personas no ven la necesidad y creen que exige demasiado tiempo u paciencia.
- Komunikazio Sistema Alternatiboak erabiltzeko, hizkuntzarekin lotutako nahaste bat izatea beharrezkoa dela uste al duzu?
 - Ez.
 - No.
 - Bai.
 - Ez, lehen esan dudana bezala, aukera ezberdinak eskaini behar diegu hurrei haien ideiak eta sentimenduak adierazteko. askotan haur txikiarentzat hitzez adieraztea benetan nahi dutena ez da batere erraza.
 - Ez du zertan. Piktogramak, irudiak edo komunikazio bibidialak adibidez ikasle guztientzat erabilgarriak izan daitezke.
 - Ez, baina nahaste bat dutenentzat onuragarriagoa dela uste dut.
 - Ez bereziki. Denoi lagundu gaitzakeen baliabidea da.
 - Ez.
 - Ez. Baliagarriak izan daitezke edozeinentzat.
 - Ez, hizkuntza izanik ere komunikatzeko zailtasunak ager daitezke eta.
 - Ez.

- Ez, tresna baliagarria izan daiteke guztiekin erabiltzeko.
 - Bai.
 - Ez, baina praktikan horrela dela uste dut.
 - Ez.
 - Ez dut uste hizkuntza nahaste bat izan beharko zenik, edozeinek beharra izango balu erabili beharko luke.
 - Ez da beti beharrezkoa trastorno edo nahasmendurik izatea. Denentzako lagungarri diren sistema komunikatiboak baitira.
 - Ez. Sentimentuak eta emozioak adierazteko zailtasunak dituzten ikasleek erabil ditzakete, beste herrialde batetik etorritako ikasleekin zenbaitetan, hala nola, gatazketan edo sentimenduak eta enozioak adierazteko momentietan erabil daiteke. Ez du zertan hizkuntzarekin lotutako nahaste bat izan behar.
 - Ez, guk klasean piktogramak erabiltzen ditugu eta ez daude hizkuntzarekin lotutako nahasterik duten haurrik.
 - No, se utilizan en distintos ámbitos: TEA, Discapacidad intelectual, motórica...
 - Ez. Adibidez ulermen arazoak dituzten ikasleekin erabil daiteke.
 - Ez, agian arazoren bat ez izanda ere, horrelakoak erabiltzeak langundu diezaieke hainbat ikasleei.
 - No necesariamente.
 - Ez, ez du zertan.
 - Ez da beharrezkoa.
 - No, son recursos que enriquecen tanto a personas con trastornos del lenguaje, a personas con otros trastornos o dificultades como para aquellas personas de modalidad ordinaria que no presenten dificultades ni retrasos en el desarrollo. Es decir, los SAAC se pueden trabajar con todo tipo de perfiles.
 - Ez, baina hortik hasten da.
- Gure gizartean Komunikatzeko Sistema Alternatiboei buruzko informazio falta dagoela uste duzu?
 - Bai.
 - Bai.
 - Si.
 - Bai, asko. Bai gizarte mailan baita hezkuntza munduan.

- Bai, haur hezkuntzako graduan ez nuen honen inguruko informaziorik jaso. Nire kabuz ikasi nuen.
 - Bai.
 - Bai, nire kasuan behintzat. Izen horrekin ez dut lotu esanahiarekin. Horretaz gain, ez dakit oso konsziente garen zer, nola eta zertarako balio duten.
 - Ez. Irakasleak nahia edukiz gero.
 - Bai, orain zertxobait gehiago entzuten da baina oraindik askorentzat gauza berria da.
 - Bai, hezkuntza gradu bat ikasi beharra dago horietaz informazioa jasotzeko. Hau da, informazioa bestelako gune/inguru batzuetara zabaldu beharko litzateke.
 - Ba seguraski bai ,Nik uste bakarrik espezialistak besterik ez dituztel a erabiltzen...
 - Bai, informazio falta handia.
 - Bai.
 - Bai, oro har bai. Hezkuntza mailan gero eta ezagunagoak dira eta hasiak gara piktogramak erabiltzen, argazkiak... alabaina, kosta egiten zaigu oraindik eta gizarte mailan ere ezagutza falta handia dagoela esango nuke gai honen inguruan.
 - Bai, asko. Praktiketean bakarrik ezagutu ditut.
 - Sí, claramente.
 - Bai, bai gizartean orokorrean, baita irakasleen artean ere.
 - Por supuesto.
 - Bai, handia.
 - Bai, oso handia.
 - Uno enorme.
 - Bai.
 - Bai, nik espezialitate bat egitean ezagutu nituen.
- KSAen erabilera normalizatzea egoki ikusten duzu? Zergatik?
 - Bai.
 - Bai.
 - Bai, guztiok aukera berdina izan beharko genituzkelako.
 - Bai, haurren ezaugarriei egokitzeko eta haien behar edota nahiei egokitzen garen bezala, KSAen erabileraren normalizazioa ere bultzatu eta bertan parte hartu beharko genuke.

- Noski, inklusioari mesede egiten dio. Ikasleen komunikazio behar desberdinei aurre egiteko tresna ezinbestekoak dira.
- Bai, hala behar luke.
- Beren baliagarritasuna aintzat hartuz, bai.
- Bai, pertsona oron eskubideak bermatze aldera.
- Bai. Aniztasunari erantzun eta inklusioa bueltatzeko.
- Bai, egokia eta beharrezkoa. Esan bezala tresna baliagarria izan daitekeelako komunikazioa errazteko eta aurretik aipatutako beste egoeretarako ere.
- Si.
- Noski baietz, aurretik aipatu gisan, funtsezkoa baita Hezkuntza Inklusibo bat eraikitzeke. Ikasle orori behar duen laguntza emanten laguntzen baitute KSAk.
- Denok ikasteko: nola erabili eta zeinekin.
- Bai, haur guztien lagungarri delako.
- Bai. Guztiok barne hartzen gaituen gizarte bat sortzeko beharrezkoa delako.
- Ez dakit, ez ditut behar andina ezagutzen.
- Bai, integrazioa bermatzeko eta beharrezkoa delako denomtzat onuragarriak direlako.
- Bai, beharra egoteaz gain, komunikazio gaitasunak garatzen laguntzen dutelako.
- Bai. Komunikazioa delako helburu nagusia kontuan izan gabe zein den bidea.
- Bai, aniztasunari erantzun beharra zaio, eta gizaki guztien garapena eta eskubideak bermatu behar dira.
- Noski! pertsona ororen hizkuntza eta komunikazio eskubidea bermatu behar da. Horretarako bideak jartzea gure eginbeharra da hezitzaile moduan.
- Bai. Zenbaitetan komunikatzeko beharrezkoak dira, lagungarriak eta baliagarriak dira.
- Bai, lagungarria izan daitekeelako gure lanean.
- Creo que deberían normalizarse más y utilizarse cada vez que fuera necesario en función de las necesidades de la persona. Además, potencian la comunicación.
- Bai. Beharrezkoa ikusten dut pertsona hauen benetako inklusioa egon dadin gizartean, baita beraien komunikazio beharrak bermatzeko ere.

- No, debería ser obligatoria en los colegios.
- Bai, beste hezkuntza baliabide gisa erabiltzeko eta ezagutza zabalduz gero ikasleengan ere eragin positiboa izan dezaketelako.
- Zabalduegoa egon beharko litzateke.
- Totalmente, además de necesaria.
- Ez.
- Bai. Gizartearentzat lagungarria izan daitekeelako, bai komunikazio aldetik eta baita seinaleak eta bestelakoak hobeto ulertu eta aplikatzeko.
- Bai, ez moldaketa bat da guztiok aukera berdinak izateko.
- Si, es totalmente necesario.

VI. Eranskina: Satorraren ipuina



<https://drive.google.com/file/d/1nZSHkKEN9s3tnwd83skH4mPccuGx-jlr/view?usp=sharing>

VII. Eranskina: Pikto-ordutegia eta dagokion legenda




| ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA |
|------------|-----------|------------|----------|----------|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |



VIII. Eranskina: *Giltzetakoan jarritako piktogramak, ARASAAC*
 (<https://arasaac.org/pictograms/search>).

Emozioak





| | | |
|--------------|-------|---------|
| | | |
| Urduritasuna | Lotsa | Nahasia |
| | | |

| | | |
|---|---|--|
| Poza | Tristura | Beldurra |
|  |  |  |
| Haserrea | Harridura | Nekea |

Eritasunak















| | | | | |
|---|---|---|--|---|
|  |  |  |  |  |
| Belarriko mina | Besoko mina | Buruko mina | Eskuko mina | Oineko mina |
|  |  |  |  |  |
| Lepoko mina | Gaizki-egona | Tripako mina | Ipurdiko mina | Erori |

Eskolako errutinak





| | | | |
|---|---|--|---|
|  |  |  |  |
| Asanblea | Psiko gela | Patioa/Parkea | Txokoak |





| | | | |
|---|---|--|---|
|  |  |  |  |
| Bazkaria | Hamaiketakoa | Liburua/Ipuina | Ingelesa |
|  |  |  |  |
| Eskuak garbitu | Pixa/Kaka egin | Mantala jantzi | Gorde |

Etxeko errutinak









| | | | | | | |
|---|---|---|---|--|---|---|
|  |  |  |  |  |  |  |
| Telebista ikusi | Jolastu | Sukaldatu | Orraztu | Erantzi | Jantzi | Hortzak garbitu |
|  |  |  |  |  |  |  |
| Lo egin | Esnatu | Dutxatu | Ohea egin | Mahaia jaso | Mahaia jarri | Garbitu |

Lekuak

| | | | |
|---|---|--|---|
|  |  |  |  |
| Parkea | Psikogela | Eskola | Etxea |

| | | | |
|---|---|--|---|
|  |  |  |  |
| Komuna | Logela | Sukaldea | Egongela |

Esamoldeak

| | | | |
|--|--|--|--|
|  |  |  |  |
| Kaixo | Zer moduz? | Ongi | Gaizki |
|  |  |  |  |
| Ez | Bai | Laguntza | Ni |